

Nafarroako industrializazio prozesua
Batxilergoan:
Arazoetan Oinarrituriko Ikaskuntzaren
bidezko proposamen didaktikoa

UPNA-NUP

Bigarren Hezkuntzako Irakaskuntza Masterra (2015-2016)

Egilea: Txomin Fernández Brieba

Zuzendaria César Layana Ilundain

Laburpena

Hezkuntza sistemak berritzaile izan behar du eta ikasleen ikasketa prozesu aktiboa eta esanguratsua garatu. Aldi berean, Historiaren diziplinak berrikuntza didaktikoarekin bat egin behar du ikasleek alor honek eskatzen dituen xedeak betetze aldera. Horrela, Arazoetan Oinarrituriko Ikaskuntza metodologia esperientzia didaktiko aproposa da Nafarroako 60 eta 70.eko hamarkadetako industrializazio prozesua eta haren ondorio demografiko eta sozialak, Iruñeari dagokienak nagusiki, jorratzeko. Hemen aurkezten den proposamen didaktikoarekin, ikasleek modu aktiboan garatuko dute haien ezagutza, bai lan autonomoa burutuz bai eta taldean jardunez. Ikasleek Nafarroak bizi izan zituen aldaketa ekonomiko, demografiko eta sozialak aztertuko dituzte, eta haien senideek bizi izan zuten eraldaketa prozesua ezagutuko dute. Horretarako, informazioaz baliatuko dira, haiek iturri idatzietara joz, haiek informazio hura prozesatuz eta ideiak aurkeztuz. Historialariaren papera beteko dute, bai denboran bai espazioan gertuko den gaia jorratuz, eta hala, motibagarriago izaki, haien ikasketa prozesua garatuz.

Resúmen

El sistema educativo debe ser innovador y garantizar el desarrollo del proceso de aprendizaje activo y significativo de los alumnos. Al mismo tiempo, la disciplina de la Historia debe contribuir junto con la innovación didáctica al logro de los objetivos. De este modo, el Aprendizaje Basado en Problemas es una técnica didáctica adecuada para trabajar el proceso de industrialización de Navarra en las décadas 60 y 70 y sus consecuencias sociales y demográficas en la ciudad de Pamplona, principalmente. Mediante la propuesta didáctica que aquí presento los alumnos desarrollarán de un modo activo su conocimiento, trabajando de forma autónoma y mediante el trabajo colaborativo. Los alumnos analizarán los cambios económicos, demográficos y sociales que vivió Navarra, y conocerán el proceso de cambio que vivieron sus familiares. Así, recurrirán a la búsqueda de información, a las fuentes escritas, procesando la información y exponiendo sus ideas. Los alumnos tratarán de ser historiadores, trabajando un tema histórico cercano en el tiempo y en el espacio que resultará doblemente motivador pudiendo desarrollar su aprendizaje.

Abstract

The education system has to be innovative and develop the active learning process of the students. At the same time, the discipline of History has to contribute with the didactic innovations to the achievement of the objectives. In this context, the Problem's Based Learning method is appropriate to work the industrialization process of Navarre in the 60-70 decades and its social and demographic consequences, principally in the city of Pamplona-Iruñea. With this didactic proposal the students will develop their knowledge actively and work in group. The students will analyze the economic, demographic and social changes that happened in Navarre, they will know the process of change that their relatives lived. In this way, they will search the information, with the written sources, and they will process the information and present their ideas. The students will play the role of historians, working a close topic in time and in space, what will be motivating, and will help in the development of their learning.

AURKIBIDEA

SARRERA.....	3
MARKO TEORIKOA.....	5
MARKO EPISTEMOLOGIKOA: NAFARROAKO INDUSTRIALIZAZIO PROZESUA	5
MARKO DIDAKTIKOA: ARAZOETAN OINARRITURIKO IKASKUNTZA.....	16
MARKO KURRIKULARRA	21
PROPOSAMEN DIDAKTIKOA: NAFARROAKO INDUSTRIALIZAZIO PROZESUA BATXILERGOAN	27
PROPOSAMENAREN HELBURUAK	29
LANAREN ESTRUKTURA ETA SEKUENTZIAZIOA.....	30
EBALUAZIOA.....	35
KONKLUSIOA	40
ERANSKINAK.....	42
1- IRAKASGAIAREN ANTOLAKETA	42
2- DENBORALIZAZIOA ETA SAIOEN ANTOLAKETA.....	43
3- ESZENARIOA	44
4- IKASLEEK DITUZTEN AURREKO EZAGUTZAK AZALERATZEKO GALDETEGIA	45
5- 7. SAIORAKO IKASLEEK BETE BEHARREKO TAULA	46
BIBLIOGRAFIA	47

SARRERA

Aspalditik eskoletako eguneroko erronka nagusietako bat hezkuntza berritzearena izan da, hezkuntza sistema eraldatzearena. Atzean geratu dira, edo saiatzen gara atzean gera daitezen, XIX. mende aurreko metodologia zaharkituak, ezagutzaren transmisio hutsean oinarritzen direnak. Egun joera ikasleek haien ezagutza eta ikasketa prozesua eraiki dezaten da. Hori da gure xedea, edo izan beharko luke. Informazioaren mundu bilakatu den gizarte honetan irakasleok ezin dugu transmisioaren papera bete, ikasleek beraiek ikasteko tresnak garatu behar dituzte. Erronka inportantea da ezbaierik gabe, hala adierazten baitu egunero, hilero, eta urtero berritzailetzat jotzen diren afera berdinez aritzeak.

Erronka, ordea, handiagotu egiten da Gizarte Zientzietan eta Historiaz egiten dugunean, ikasle askorendako eskolako irakasgai madarikatuenetarikoa. Gertakari eta data aspergarriez josiriko alorra izatetik ikuspuntu berrietatik aztertzen den diziplina izatera pasa da gurea zorionez. Baina hura hezkuntzan oraindik sumatzeke dago, oroimen hutsean oinarrituriko irakasgaia izaten jarraitzen baitu askorendako. Hala, berritzaileak diren metodoak berritzaile ere izan behar duen Historiara aplikatu dituzte. Izan daitezela gure arloari dagokionean ere ikasleek ezagutza prozesuaren eraikitzaile, motiba dituzte, piztu dezagun ezagutza historikoarekiko interesa, azaldu diezagun historia politikoa ez ezik soziala, baloreen historia, kulturala eta afera anitzekoa badagoela, inportantea badela.

Zertarako bada historia? Zertarako iraganeko jende aspergarri horren bizitzak ezagutu? galdetzen dute hainbat ikasleek. Iraganetik hasirik gure errealitatea ezagutzeko, gure orainaren galderei erantzuna emateko. Iraganean ikertzea, murgiltzea, enpatia garatzea, iturri historikoetara, idatzi zein ahozkoetara jotzea da gure xedea. Uler ditzaten kausen eta gertaeren segida, haien ondorioak, konplexuak diruditen eguneroko auziak uler aldera landu dezagun historia ikasgeletan.

Horrela bada, bi erronka hauei irtenbidea emateko enegarren saiakera da nik hemen aurkezten dudana. Berritzailea den metodologia didaktiko bat harturik, Arazoetan Oinarrituriko Ikaskuntza, gai historiko bat landuko dut, **Nafarroako industrializazio prozesua: Iruñeko hazkunde demografikoa eta eraldaketa soziala**. Gai historikoaren gertutasunak eta metodologiaren berezkotasunak, ikaslearen lan autonomoa bultzatzea xede duena, ahalbidetuko dute ikasle kritiko, autonomo eta metodo historikoaren berri duenaren garapena. Hori behintzat da nik hurrengo orrialdeetan aurkeztuko dudana.

Beraz, hasteko, marko epistemologikoa landuko dut, AOI metodologiaren bidez jorratu nahi dudana gai historikoa aurkeztuz. Modu honetan, bibliografia kontsultatu ostean eta informazioa bildu ondotik, Nafarroako industrializazio prozesua aurkeztuko dut. Lehenik, XIX. mendeko lehenengo kimu industrialak aipatuko ditut prozesu horren

aitzindari bezala, ondotik, jada XX. mendeko 50. hamarkadan hasiko ziren ekimenak azalduko ditut eta gero, jada 60. hamarkadatik aitzina Diputazioaren ekimenarekin bat garatuko den industrializazio prozesuaren nondik norakoak azalduko ditut. Azkenik, pentsatu dut interesgarria litzatekela industrializazioaren ondorioak aztertzea eta hura ikasleek jorratzea, hala, hortaz, industrializazioak ekarri zuen inpaktu demografikoa azalduko dut, migrazio mugimenduei erreparatuz eta urbanizazio prozesua aipatuz. Baita, gizarte berriaren garapena eta trantsizio garaiko gatazka sozialak ikasleek ezagutzea garrantzitsua dela deritzenez, langile mugimenduaren hastapenak ere aipatuko ditut.

Gai historikoa azalduz, AOI metodologia zertan datzan azalduko dut, Amerikako medikuntza fakultateetan aplikatzen hasi zelarik azalduz. Baita, AOIren ezaugarriak aipatuko ditut, konstruktibismoan funtsatzen delarik, ikasketa esanguratsua ahalbidetzen duelarik eta ikasleen lan autonomoa sustatzen duelarik.

Ondotik, marko kurrikularrak biltzen dituen helburu, eduki eta ebaluazio irizpideak azalduko ditut, nire proposamenarekin bat etor daitezkeenak eta, beraz, nik landuko ditudanak. Azkenik, nire proposamen didaktikoa aurkeztuko dut, honen helburuak zehaztuz, lanaren beraren estruktura azalduz, taldeen osaera zein denboralizazioa aipatuz. Nire planteamendua ebaluatzeko modua aurkeztuko dut ere, horretarako errubrikak prestatu ditudalarik. Nire proposamenak dituen abantailak eta izan ditzakeen desabantailak konklusioan paratuko ditut, lana laburbilduz eta nire hipotesia berretsiz.

Lan honetan beraz, nik adierazi nahi dut nire proposamen didaktikoa baliagarria dela ikasleek Nafarroak bizi izan zuen aldaketa sozial eta ekonomikoa lantzeko, gai historikoa bai denboran hurbila delako bai eta espazioan ere, ikasleen senideek bizi izan zuten errealitatea izan zelako. Gainera, proposaturiko metodologiaren bidez, lan aktiboa burutzeko parada izanen dute historia haiek haien kabuz eraikiz.

MARKO TEORIKOA

MARKO EPISTEMOLOGIKOA: NAFARROAKO INDUSTRIALIZAZIO PROZESUA

Lan honetan Nafarroa Garaiko industrializazio prozesua jorratuko dut, hezkuntza testuinguruan proposamen didaktiko baten bidez aplikatzeko. Industrializazio prozesua deritzon Nafarroak XX. mendearen bigarren erditik aurrera bizi izan zuen modelo ekonomiko zein sozialaren prozesuaz ari naiz, hots, nekazaritzan oinarrituriko ekonomia batetik bigarren sektorean oinarritzen zen ekonomia baterainoko prozesua, nafar gizarte industrialaren eraketa. Dena dela, jakina denez, bigarren sektoreak beti izan du presentzia gurean, beti egon izan dira industriak, tradizionalak, xumeak; baina ni industria modernoaz ariko naiz eta agian Nafarroan honen abiapuntua XIX. mendean jada ezar genezake, hala ere, esan bezala, gizarte industrialaren eraketa 60-70.eko hamarkadetan garatzean, etapa horri deritzogu industrializazio prozesua.

Industrializazioak, aldaketa ekonomikoak ez ezik, hauek ekartzen dituzten aldaketa sozialak eragiten ditu, gizarteak eraldatuz eta klase berriaren sorrera ekariz, langilegoa. Beraz, mundu mailan garrantzi handia izan duten prozesuak ditugu, egungo gizarte modernoaren oinarri eta eragile. Haren jatorria XVIII. mende amaierako Ingalaterran dugu eta bertatik Europa mendebalde osora hedatuz joan zen progresiboki, mundu mailan ere eraldaketa ekonomiko inportante hau ematera pasaz. Horrela bada, haren garrantziak gizarte modernoaren egituraketan historialari anitz eraman ditu prozesu honen inguruan ikertzerak, tesi eta lan anitz publikatu ahal izan direlarik industrializazio prozesu anitzen inguruan: non eta noiz, eta zergatik garatu ziren? Zer ondorio izan zituen? Zer inpaktua izan zitzaizkeen garaiko gizarteetan? Ikuspegi askotatik beraz ikusi izan den gaia dugu.

Industria iraultza historialariek modu desberdinez aztertu izan dute Toynbeek gizarte aldaketa sakon gisa ikusi zuen, Colek edo Rostowek aldaketa makroekonomikoei garrantzia eman zieten, D. S.Landesei aldaketa teknologikoak izan zituen kontuan edota Wrigleyk energia erabilera. Bestalde, historiografia marxistak adibidez, asko jorratu duen gaia da, Thompsonen langile klasearen sorrera eta garapena aztertu zituelarik, edo Hobsbawmendako gai inportantea izan da industrializazioa kapitalismoaren garapenean. Industrializazioaren inguruko ondorioei dagokienean, maiz aipaturiko historialari marxistak kritikatu dira gizartean izan zituen aspektu negatiboak azaleratuz, baina beste egile batzuekako prozesu positiboa izan zen batik bat.

Nafarroan ere maila lokal eta xumeago batean lanak eta argitalpenak egin izan dira, hemengo industriaren garapena aztergai izan dutenak. Ezbairik gabe hemen jorratuko dudako gaiak egungo nafar gizarte modernoaren sorrera ekarri baitzuen,

nekazaritzan oinarrituriko Nafarroa tradizional kontserbadoretik Nafarroa industrial anitz eta modernorako trantsizioa.

Hasteko, XIX. mendeko lehenengo kimu industrialen ingurukoak landu izan dituzte hainbat historialarik, lehenengo ekimen eta enpresen inguruko lan eta artikulua publikatu direlarik: Garruésesek (1992; 2006) adibidez, elektrizitate industriaren garapena landu izan du, basogintza eta Irati trenbideari buruzko artikulua argitaratuz. Trenbidearen sorrera Macíasek (1992) landu izan du, elikagai industriaren hastapenak aztergai izan zituen Gracia Guillének (2001), kontserba industria Fuente Langasek (2014) eta Los Huertosek (1992) Nafarroako industriaren kokapena.

Dena dela, XIX. mende hasierako industriei buruzko lan orokor gutxi argitaratu dira, tokian tokiko industriei buruzko lan espezifikoa gailentzen direlarik. Demografiari dagokionean, industriarekin hertsiki loturiko gaia, Nafarroan García-Sanz Marcote guik eta Mikelarena Peñak (2000) jorratu izan dute. Bestetik, Mendiolak (2002) lan monografiko apartan Iruñeko XIX. mende amaiera eta XX. mende hasierako demografia eta migrazio mugimenduak aztertu zituen, lehenengo industriaren ezarpena aipatuz.

Hala eta guztiz ere, XX. mendeko 60ko hamarkadan hasiko den industrializazio prozesuaren inguruko lan orokorrak faltan sumatzen dira, prozesua bere osotasunean hartzen duten argitalpenak urriak direlarik. Lurralde honetan hain inportantea izan zen landa exodoa lantzen duen lanik ez dago adibidez, etorkizuneko historialariek ikertzeke esparrua delarik. Akaso etapa honen gertutasunak ez du ahalbidetu lan askoren argitalpena. Dena dela, nik hemen hainbat artikulua jorratu izan ditut prozesua orokorrean azaltzen dutenak. Arizkun Celaren artikuluek gain (1992; 2001), De la Torrek (2005; 2006) industrializazioaren sorrera landu du, enpresariaren ekimenak eta Diputazioaren papera. Horretaz aparte, Floristánek (1986) zuzenduriko obra kolektiboan hainbat artikulua lantzen dute industrializazio prozesua, Ferrer Regalesen artikulua adibidez lagungarriak suertatu zaizkidalarik. Azkenik, Nafarroako gizarte berriaren egituraketa gaitetik jorratzen dute Iriartek (1995), langile mugimenduaren sorrera azaltzeko, langile mugimenduari buruzko haren lanean, eta Mendazak (1994) klase berriaren agerpena azaltzerakoan.

Horrela bada, esan bezala, industrializazio prozesua XX. mende erditik aitzina hasi zen Nafarroa Garaian, baina bigarren sektoreak presentzia zuen lehenagotik, industria modernoaren lehenengo zantzuak XIX. mendean koka daitezkeelarik. Izan ere, Nafarroa lehenengo industrializazio uhaldetik at geratu zen, elite ekonomikoek lurjabetza zuten helburu, eta ez zuten industrializazio prozesu emankorrik zuzendu.

Hala, industria soilak eta tradizionalak ziren, xumeak eta tokian tokikoak, burdingintza eta oihalgintza tradizionalak gailentzen zirelarik. Egur ikatza zein ur energia erabiltzen zituzten burdinola tradizionalak Mendialdean eta oihalgintza Iruñean batik batik zeudelarik¹. Bestalde, Iruñea eta eskualdeburuetan lantegi txikiak bazeuden,

¹ LARRION (1995) 73. orr.

bertako populazioaren kontsumo ondasun urriak ekoizteko. Prozesu geldoa izan zen, beraz, industrializazioarena eta hala XIX. mende erdia erabakigarriagoa izanen zen industrializazioaren oinarri ahulak ezartzeko, 1841.eko legeak eta aduanen lekualdaketak lantegi berrien sorrera ekarri baitzuen. Horren adibide direlarik Iruñeko *Sarvy y Pinaqui* edo Berako *Fundiciones del Bidasoa*. Gero, ekimen berriak sortuz joan ziren batez ere mende amaieran, azken karlistaldia amaiturik. Orduan Diputazioaren ekimenez azpiegiturak eta garraiobideak garatuz joan ziren, eta trenbidea Nafarroara hedatuko zen Kastejon-Altsasu bidea lotuz².

Garraiobideen hobekuntzarekin batera nekazaritzarekin loturiko industriak ezarri ziren, nekazal produktuen prozesatzearekin lotuak, hots, azukrea, olio zein ardo bezalako produktuak ekoizteko lantegiak sortu ziren, Erriberan kokatu zirenak nagusiki. Gainera, mende osoan zehar egoniko hazkunde demografikoa elikagai industriaren bultzatzaile izan zen³.

Nekazaritza produktuen ekoizpen eta prozesatuarekin, nekazal iraultza ere eman zen, hau da, pixkanaka makineria berria eta ongarritze kimikoak erabiltzen joan ziren, hauen produkziarako industria berriak sortuz. Berrikuntza hauen hedapena herri askotan sortuko ziren landa aurrezki kutxa (*cajas rurales*) eta kooperatibek bultzaturik gauzatu zen. Hauek ongarrria eta haziak hornituko zizkieten nekazariei, salmentak kudeatuko zituzten, kreditu eta maileguak eskaini, nekazal makineria erosiko zuten eta etekinak kideen artean banatuko zituzten. Ardogintza kooperatibek ere lagunduko zuten filoxeraren krisiaren ostean mahastien berreskurapena eta ardo ekoizpenaren igoera ahalbidetuko zutelarik. Horretaz aparte, elikagai industriaren garapena bultzatu zuten, irin ekoizpena sustatuz, azukre erremolatxen fabrikak eraikiz eta kontserba industria finantzatzuz⁴. Iruñean inportanteak ziren nekazaritzarekin loturiko industriak, ongarritzearekin loturikoak 1900ean sorturiko *Abonos Químicos de Pamplona*, *Cupriol* edo nekazal lanabesen fabrika zen *La Fabril Navarra* 1918. urtean sortua⁵.

Bestalde, etapa honetan Gipuzkoarekin mugan gune industrial xumeak garatu ziren pixkanaka, aurreko industria tradizionalak garatuz: papergintza Betelun, burdingintza Altsasun eta altzairugintza Beran. Baita aipagarria da Olatzagutian ezarri zen *Cementos Portland*, zementuaren produkziara zuzendua. Nafarroako ekialdean, Iratiko oihanean basoak ustiatuko ziren, basogintza garatuz, zerrategiak sortuz eta altzarigintza. Agoitzeko merindadeko garapen industrialala estuki loturik egonen zen *Irati* trenbidearen garapenarekin, zonaldeko industriaren bultzatzaile izanen zena⁶.

Nafarroako hiriburuan ere fabrika modernoak ezartzen hasiko ziren, 1880. urtean irekiriko *Gran Tejería Mecánica Pamplonesa* inportantea izanen zelarik adibidez. Baita elikagai industriak sortu ziren, irin fabrikak, sopa eta gaseosak ekoizteko fabrikak, etab.

² LARRION (1995) 74-76.orr.

³ LARRION (1995) 76-77.orr.

⁴ FERRER REGALES (1986) 110. orr.

⁵ MENDIOLA GONZALO (2002) 104.orr.

⁶ FERRER REGALES (1986) 110. orr.

Hala ere, lantegi txikiak ziren nagusi Iruñean, 50 langile baino gehiagoko enpresak urriak zirelarik

Dena dela, aurrerago, XIX. mende amaierarantz eta XX. mende hasieran, hiriak bigarren sektorearen garapen inportantea biziko zuen eraikuntzaren garapenarekin, Zabalguneak eraikiko baitziren. Hala, etxebizitzaren eta espazio faltaren arazo kronikoari aurre egiteko hiriak harresiak bota eta auzo berrien eraikuntza bultzatu zuen, Lehenengo Zabalgunearen eraikuntza 1890. urte aitzina hasirik eta 20ko hamarkadatik aitzina Bigarren Zabalgunearen eraikuntza eta garapena. Gainera, etapa honetan Plazaola eta Irati trenbideak iritsiko ziren Iruñera ere, eraikuntzaren sektoreak bultzada inportantea izanik. Honek lanpostuen sorrera ekarri zuen eta, hala, hirirako emigrazioaren handiagotzea⁷.

Aipatu ekimenak egon arren eta pixkanaka industriak sortu arren, bigarren sektorearen garapena geldoa izan zen. Nekazaritzan oinarrituriko ekonomia zen nagusi, nekazal produktuen industria, kontsumo ondasunen ekoizpena zuzenduriko lantegiak eta ipar-ekialdean altzairugintza eta basogintzara zuzenduriko industria lokalak. Hala, Gerra Zibila amaiturik, oraindik 1950.ean lehenengo sektoreak biztanleriaren %54 hartzen zuen, industria sektorea ez zegoen garaturik, artisautza zelarik nagusi, izaera lokal eta autarkikoa zuena⁸.

Hala ere, 50.eko hamarkadatik aurrera egoera aldatu zen. Industriak hazkundera biziko zuen, Erriberan kontserba industriak indartzuz, metalgintza industria modernoak garatuz eta sektore berriak (kimika edo papera) hedatuz. Modu honetan, eliteek kontrolatzen zuten Diputazioak 1953 eta 1958 urteen artean salbuespen fiskal eta laguntzen bidez gehi lehenengo sektoretik zetorren lanesku merkeak ahalbidetu zuen lehenengo industria moderno hauen ezarpena⁹. Nekazal berrikuntzek eta makineriaren sarrerak nekazal lanekuaren galera eragin zuten industria sektorearen mesedetan. Urte hauetan, beraz, enpresa anitz sortuko ziren: *Agni*, 1952. urtean *Imenasa S.A.*, eta urte baten buruan beste enpresa inportante bat agertuko zen, *Perfil en Frío S.A.*; *Torfinasa* (1955), *Inasa* (1956), *Papelera Navarra S.A.* (1956), *Laminaciones de Lesaca S.A.*(1958) edo *Potasas de Navarra* (1960) jarraitu zioten¹⁰. Beste enpresa batzuk aipatzearen, elikagai industriak ere enpresa berrien sorrera ikusi zuen, *Industrias Muerza S.A.* eta hestebeteen ekoizpena dedikaturiko *Pamplonica* famatua adibidez. Horrela bada, industria enpresa eta elkarte anitz sortu ziren lehenengo uholde honetan, 1955 eta 1964. urteen artean sortzen diren 35.306 lanpostu berriek eta sorturiko 249 enpresek adierazten duten bezala¹¹.

Hala eta guztiz ere, industriaren bultzada, benetako industrializazio prozesua 60ko hamarkadatik aitzina hasi zen Diputazioak Industria Garapen Programa (*Programa de Promoción Industrial*, PPI) martxan jartzean. Nafar oligarkiak

⁷ MENDIOLA GONZALO (2002) 104.orr.

⁸ FERRER REGALES (1986) 111. orr.

⁹ SANZ-MAGALLÓN REZUSTA (1998) 224. orr.

¹⁰ IRIARTE ARESO (1995) 33.orr.

¹¹ FERRER REGALES (1986) 114. orr

kontrolatzen zuen Diputazioak bultzatu zuen PPI, ekimen publiko eta pribatuaren parte hartzea egon zelarik. Etapa honetan industrializazio eta modernizazio prozesuaren protagonistetako bat dudarik gabe Félix Huarte izan zen, enpresari eta industrigizon nafarra, II. Errepublikaren garaian errepublikazale zein eskuineko jendeekin negozioak egiteko gaitasuna izan zuen, kolpe estatua gertatzean azkar altxaturiko bando faxistari lagundu ziolarik haren interes ekonomikoen mesedetan. Horrela, frogaturik dago nafar oligarka honen ekarpena faxisten garaipenari, eta geroko haren enpresen parte hartzea "Valle de los Caídos" delakoaren eraikuntzan. Polemikoak izan zen zentzu horretan, 2014. urtean Nafarroako gobernuak Nafarroako urrezko domina F. Huarteren omenez haren senideei eman zienekoa, industrializazioari eginiko ekarpenagatik. Memoria historikoaren aldeko elkarteek salatu egin izan zuten orduan erregimen frankistarekiko lotura estuak zituen enpresari horri eginiko omenaldia¹².

Ezbairik gabe Huartek kapitala metatu izan zuen 30 eta 40ko hamarkadetan eta, hala, 50eko hamarkadetan lehenengo industria modernoetako bultzatzaile nagusia izan zen. Lehenago aipatu enpresa askok bere taldearenak, Huarte & Cía ziren: Inasa, Torfinasa, Imenasa... Etekinak etekin, Huarte, Diputazioaren presidente izatera iritsi zena, erakunde publikoek baliatu izan zen haren negozioak biderkatze aldera. Politikari eta enpresari honen bizitza Paredesek (1997) plazaratu izan zuen nahiko irudi positiboko biografia batean.

Horrela bada, Nafarroako industrializazio prozesuaren abiapuntua ekimen pribatuek kontrolaturiko ekimen publikoak gidatu zuen, Diputazioa industriari mesedetan erabili zutelarik eta jardun zuelarik. Gauzak horrela, PPIren helburua 50eko hamarkadan hasierako prozesua indartzea zen eta Espainian garatzen ari ziren Garapen Planetikiko Nafarroak Madrilgo gobernuari jarraiki industrializazioa bultzatu zuen, ekonomia sektore guztien antolaketa eta modernizazioa helburu, siderurgia bultzatzea, sektore dinamiko berrien hedapena sustatzean etab¹³.

Diputazioak PPIren bidez onurak eskaini zizkien enpresei lurraldean inbertitu eta fabrikak ezartzeko, hasierako milioi pezetako inbertsioa eta gutxienez hamar lanpostuen sorrera bermatzen zuten enpresek diru laguntza eta salbuespen inportanteak izanen zituztelarik. Industria lurzorua estatuko merkeenetarikoa izan zen, Diputazioak ekimen honen alde egin zuelako seinale. Garapen Programak hainbat helburu zituen 1975. urtean betetzeko, lehenik lehenengo sektoretik eratorririko laneskua sortzea industriara zuzentzeko eta biztanleriaren hazkundera izatea. Bestetik, hedapen industrialaren banaketa armoniatua zuten helburu, industria poligonoak sortuz, Landaben nagusiki eta eskualde buruek bultzaturiko udal poligonoak.

Hirugarrenik, Nafarroako baliabide naturalen ustiaketa zuten helburu, partzialki lortu egin zena, eta baita langile kualifikatuak nahi ziren hezi ingeniarietza eskolak sustatuz, Atarrabiako Nekazal Ingeniaritza Teknikoa horren adibide delarik. Bestalde, aurrezkoa eta ogasun baliabideak bultzatu ziren, Higiezin Inbertsioen soziedadek sortuz

¹² <http://www.noticiasdenavarra.com/2014/12/03/economia/medalla-de-oro-polemica>

¹³ IRIARTE ARESO (1995) 33.orr.

eta Interés Regional izendapena sortuz, hainbat enpresei eman zieten, hala nola: Cementos Portland, La Vasco-Navarra, Sarrió, Perfil enFrío, Papelera Navarra...Azkenik, planak kanpo eta atzerri kapitalak erakartzea zuen helburu, euskalduna eta katalana erakarri zituelarik, baina baita atzerrikoa ere¹⁴.

Garapen Plan hau arrakastatsua izan zen hein handi batean eta aurreikusiriko helburu gehienak bete ziren. Nafarroak migrazio saldo positiboa lortu zuen eta hazkunde begetatiboa ere, hazkunde demografikoa eman zen, geroago hobeki azalduko dudana. Gero, antolaketa eta banaketa espazialari dagokionean, Nafarroan bertan garapen polo txikiagoak eratzea zuen xede Diputazioak, eta honek, ordea, ez zuen arrakasta handirik izan. Hainbat izan ziren antolaketa modu honetan eragin izan zuten faktoreak, lehenik lehenengo etapan lehengaiekiko hurbiltasuna, (zementua, burdinola-fundizioak, kontserbak, zurgintza, haragi industria, ardogintza) tren eta merkatuak, laneku eta enpresa ekimenen sortzaile bezala, izan ziren industrien kokapenen arrazoi nagusiak. Gerora, etapa modernoan, hiriguneetako ekonomien garapenak, eskualde eta maila nazionalera zuzenduriko merkatuen sorrerak, errepide sareak eta batez ere PPIrekin loturiko abantaila fiskal eta administratiboak izan ziren. Baina horretaz aparte, bertako enpresarien ekimen eta borondateak, lurraldearekiko atxikidurak, eragina izan zuen ere, nafar industriaren izaera endogenoak ezaugarritua¹⁵.

Dena dela, saiakerak saiakera batez ere Altsasu-Iruñea-Tutera tren ardatza eta Iruñerria izan ziren gune industrial bihurtu zirenak beste zonaldeen kaltetan. Iruñea zen industria gehien biltzen zituen gunea, kasik industriaren erdia biltzen zuelarik. Ondotik, Erriberan, Tuterak hiriburu bezala baldintza ezinhobeak zituen industria kokatzeko, nekazaritzarako zonalde egokia izateagatik, azpiegitura egokiengatik eta industria lurzoruaren kopuru altuagatik. Sakanak ere baldintza onak zituen Gipuzkoako zonalde industrialetik gertu baitzegoen, Iruñetik gertu eta zonaldeak industria tradizioa zuelako. Horrela, zonalde hauek gehi Iruñea eta haren eragin eremuak (Antsoain, Galar, Uharte, Noain) eta eskualdeburuak Lizarra, Tafalla, Zangotza eta Altsasu izan ziren enpresa gehienak eta langilego gehienak bildu zituztenak, Nafarroako gainontzeko eremuak ia ia "basamortu industrialak" izanik¹⁶. Ipar ekialdeak industria gabezia zuen guztiz, nahiz eta Agoitzen gune txikia garatu zen zurgintza, meatzaritza, ehungintza eta elikadura industrialarekin loturik nahiko xumea izan zena¹⁷.

Baina dudarik gabe planen arrakasta adierazten dutenak dira sorturiko enpresak eta lanpostuak. Bigarren sektoreak hazkunde bizia izan zuen, bertan ziharduen populazio aktiboak hogeitaz urtetan %20 ingurutik %44ra igoz. Hazkunde gehien izan zuten sektoreen artean metalgintza dugu. Hori izan zen sektore nagusia, inbertsio gehienak jaso zituenak eta langile gehien biltzen zituenak. Horrela, 1978. urtean 799 metal fabrika inguru zeuden eta langile kopuru gehien zituzten fabriken artean, hau da, 17 fabriketatik 12 fabrika, metalgintzarekin loturik zeuden. Metalgintzak

¹⁴ IRIARTE ARESO (1995) 41-42.orr.

¹⁵ PRECEDO LEDO (1986) 156. orr.

¹⁶ IRIARTE ARESO (1995) 35. orr.

¹⁷ PRECEDO LEDO (1986) 159. orr.

dibertsifikazioa bizi izan zuen: laminatuak, tuboak, torlojugintza, metal eraikuntzak, automobilgintza piezak, etxetresnak... Enpresa hauetako asko Huarte enpresariarenak ziren. Metalgintza sektoreak elikagai industriari gailendu zitzaion enplegatu kopuruan¹⁸. Aldi berean, automobilgintzaren industriaren oinarriak lantegi mekaniko txikiek ezarri zituzten, garrantzia handia izanen zuenak, batez ere 1966. urtetik aitzina automobilgintza muntaia fabrika ezarriko baitzen (AUTHI, gerora VW). Elikagai industriek ere modernizazioa bizi izan zuten, batez ere Iruñean kontzentratuko zirelarik, haragi kontserbak (Argal eta Pamplonica) hazi ziren, etxetresna elektrikoekin batera (Super Ser, Ibérica del Frío).

Horrela bada, 1960.eko hamarkadaren erditik aitzina Iruñea industria gune inportante bihurtu zen, eraldakuntzaren metalgintzara geroz eta zuzenduagoa. Hiriburuan bezalaxe gainontzeko gune industrialetan ere metalgintza industriek hartu zuten pisua, Tuteran prezisio metalgintza eta elektronika nagusituz (PIHER, SANYO, SKF)¹⁹, automobilgintzaren metalgintza Tafallan (Luzuriaga) eta jada aipatu *Laminaciones* Lesakan, Bizkaiako Labe Garaiekin loturikoa. Metalgintzarekin batera, meatzaritzak eta papergintzak ere bultzada inportantea izan zuten etapa honetan. Lehendabizi, meatzaritzak INIren partetik 1964an sortu ziren Beriaingo Potasas fabrikari esker, eta bigarrenak jada existitzen ziren papergintza guneen (Atrarrabia, Kordobilla, Zangotza) edota gune berrien (Leitza eta Allo) hazkundeari esker, baita Lizarran SALVAT enpresaren ezarpenak lagundu zuten.

1978. urtean industrien %78k 50 langile baino gutxiago biltzen zituen, 500 langile baino gehiagoko fabrikak 17 ziren soilik eta 2.000 langile baino gehiago zituena soilik *Potasas* zen. *Inasak* 771, *Agnik* 791, *Super Ser* 1.253, edo *Laminaciones* 1.849 enplegatu zituelarik²⁰.

Honetaz aparte, ezin uka daiteke industriak izan zuen protagonismo eta papera III. sektorearen garapenean. Industriak zerbitzuak bultzatu zituen, logikoa den bezala merkataritza sareak sustatu zituen eta bizi mailaren igoera ekarriko kontsumo ondasun berrien sorrerarekin. Horrela, adibide gisa, 1950. urtean 166 automobil matrikulaturik bazeuden, 1977. urtean 13.572 izatera iritsi ziren. Etxebizitzen eraikuntzak ere hazkunde bizia izan zuen, 1970. urtean ia 6.000 eraikitza iritsi zirelarik, geroago azalduko dudana hazkunde demografikoarekin loturik dagoena. Sistema finantziarioak bultzada garrantzitsua izan zuen ere noski, kreditu entitateak biderkatu ziren, eta kutxen bulegoak anitz areagotu ziren. Testuinguru honetan egun desagerturiko CAN eta Udala Aurrezki Kutxa nabarmentzen dira, Caja Rural eta Caja Laboral Popularrek ere hazkunde inportantea izan zutelarik.

Gainera, garai honetan Nafarroako Unibertsitatea sortu zen, egungo erregimen politikoaren oinarrietako bat izatera pasa dena, OPUS DEI erakundearen unibertsitatea,

¹⁸ IRIARTE ARESO (1995) 35. orr.

¹⁹ PRECEDO LEDO (1986) 151. orr.

²⁰ IRIARTE ARESO (1995) 35. orr.

aldaketa sozioekonomikoen testuinguruan koadro profesional berriak garatzera zuzendurik egon zena²¹.

Bestetik, garai hau ezaugarritu izan zuen aspektu bat demografia hazkundera izan zen, aldaketa demografikoa, dudarik gabe, Nafarroako gizartea eta fisonomia guztiz eraldatu zuena. Hori izan zen Diputazioaren asmo nagusienetako bat PPI programa bultzatzean: Nafarroatik populazioa emigratzeetik immigratzera pasa zen, hau da, kanpotik populazioa etorriko zen, eta barnean emigrazio fluxuak ere aldatuko ziren industria gunetara populazioa joanez. Beraz, egungo Nafarroa modernoa egituratuko zuen eraldaketa soziala gertatu zen, eta demografia zeharo aldatu zen.

Epealdi honetan Nafarroak hazkunde demografiko bizia izan zuen, 1955-1975 urteen artean 100.000 biztanle gora egin baitzuen biztanleriak %80 hazkunde naturalari zegokiolarik eta %20 immigrazioari²². Izan ere, jaiotza tasek gora jo zuten 1960 eta 1970 urteen artean. Bestalde, heriotza tasak mantendu ziren bataz besteko nazionaletik gora, probintzia barnean, ordea, kontrasteak nabariak izan ziren, erdialdean eta iparraldeko eskualdeetan maximoak egonik, emigrazioak eraginiko zahartzearen ondorioz. Erriberan eta Iruñerrian, aldiz, heriotza tasa minimoenak izan ziren, milatik 5,9, immigrazioak eraginiko gazteagotzeagatik.

Immigrazioa izan zen, beraz, aldaketa sozio ekonomiko eta demografikoen eragile nagusia bai barne immigrazioa bai eta kanpokoa ere. Emigrazio saldoa oraindik ere 1955 eta 1960 urteen artean negatiboa zen, baina 1960 eta 1970 hamarraldien artean aldatuko zen positibo bihurtuz, hots, Nafarroak immigranteak jasoko zituen²³. Modu honetan, barne immigrazioari dagokionean, Diputazioak haren helburuetan arrakasta izan zuen, lehenengo sektoretik bigarren sektore berrietara nekazal eremuko pertsona asko joan baitziren. Horrela, I. sektoreak, nekazariak batik bat, langile asko galdu zituen, produktibitatea ez jaitsi arren noski, industriaren mesedetan. Industrializazioaren eragina populazio aktiboaren bilakaeran argi ikusi daiteke:

SEKTOREKAKO POPULAZIO AKTIBOAREN BILAKAERA (1950-1975)				
	1950	1964	1970	1975
I. sektorea	81.304 %53,7	60.657 %33,6	42.657 %25,3	30.911 %17,7
II. sektorea	31.452 %20,7	66.228 %36,2	70.956 %42	77.476 %44,5
III. sektorea	35.646 %23,5	53.388 %29,6	54.961 %32,6	65.961 %37,5

Iturria: I. N.E. *Reseña Estadística de la Provincia de Navarra 1950*. Banco de Bilbao. Renta Nacional de España y su distribución provincial. 1964.D.F.N. Servicio de Estadística²⁴.

²¹ IRIARTE ARESO (1995) 43. orr.

²² FERRER REGALES (1986): "La población", 130. orr.

²³ FERRER REGALES (1986): "La población", 131. orr.

²⁴ IRIARTE ARESO (1995) 37-38. orr.

Soldatapeko nekazariak soldata hobeak irabaztearren gune desberdinetan kokatu ziren enpresetara lekualdatu ziren. Diputazioak bultzaturiko planen ondorioz gune landa hiritiarrak garatu ziren, Tafalla, Lizarra edo Sakana kasu, industria hartu zuten gune txikiak, baina halere, landa eremuek populazioa galdu zuten, biztanleriak gora egin baitzuen hiriguneetan. Dударik gabe hura adierazten dute INEren bezalako estatistikek, non sektorekako populazio aktiboaren datuak ez ezik populazioaren kokapenari buruzkoak azter ditzakegu. Zentzu horretan, landa populazioak 1962an Nafarroako biztanleriaren %33,8 ordezkatzetik %21,3ra izatera pasa zen²⁵.

Landa exodoa bizi izan zuen Nafarroak beraz, barne emigrazioa eta hiritartzea, hiri nagusienetara biztanleria joanez. Baina behin barne immigrazio hori xurgaturik, industria berriek kanpotik etorririko, hots, beste probintzietatik etorririko immigranteak jaso zituzten langile gisa. Modu honetan, beraz, industrializazio eta hiritartze prozesuak hazkunde demografikoarekin guztiz loturik egon ziren. Hiriburua izan zen biztanleriaren gehiengoa erakarri zuen gunea, Iruñeko eremuan biztanleria 4,5 aldiz biderkatu baitzen 1920-1975 urteen artean, gainontzeko Nafarroako eremuekin kontrastatzen zuena. Nekazal garapen eta industria garapen indartsuko eskualdeek haren biztanleriaren igoera bizi izan zuten, Sakana, Tutereta eta Ebro inguruko Erriberak. Hala ere, eskualde askok populazioa galdu zuten periodo berdinean, Gares eta Ultzamako eskualdeek kasu²⁶.

Iruñeak hazkunde demografiko handia izan zuen. 1950. urtean probintziako biztanleriaren %18,9 izatetik 1975. urtera %44,19izatera pasa zen inguruko herriak kontuan hartuz. Inguruko herriek, esan bezala, hazkunde handia izan zuten ere, Burlata izan zelarik hazkunde altuena izaten %566ko hazkunde tasarekin, euskal probintzietako eta Kataluniako eskualde askoren antzera. Honi Atarrabiak jarraitu zion %207ko tasarekin, Antsoainek eta Zizurrek ere joera gorakorra izan zuten. Beste zonalde batzuetan, Sakanan adibidez, Altsasu (%171) eta Olazagutia (%169) nabarmendu ziren. Orokorrean esan daiteke udalerrri gehienek biztanleria galdu zutela eta zonalde dinamikoak garatu zirela: Iruñea, Tutereta, Ebroko Erribera eta Sakana²⁷. Hirien populazioak dezente egin zuen gora, XX. mendearen lehenengo herenetik azken hamarkadara hirien kopurua ere bikoiztu zelarik, hots, 5.000 biztanletik gorako guneak 5etik 11ra pasa ziren eta 1960. urtean hirietako populazioak %33a osatzen bazuen 1981. urtean %55 osatzera pasa zen²⁸.

Iruñerria izan zen migrazio fluxuen helmuga, migrazio saldoak oso handiak izan zirelarik bertan, Antsoain gailenduz (%507ko migrazio hazkundera), Burlata (%311), Zizur (%207), Galar (%158)... Aipatu udalerrri horietan lehenago esan bezala kokatu baitziren industria nagusiak. Hala, Nafarroan 1975. urtean bizi zen biztanleriaren kasik %20beste probintzietan jaioa zen eta 1970. urteko erroldak adierazten duenez, Gaztela eta Leon eta Andaluziatik etorririko biztanleria nagusitzen zen (%34,17); euskal

²⁵ IRIARTE ARESO (1995) 32. orr.

²⁶ IRIARTE ARESO (1995) 28.orr.

²⁷ IRIARTE ARESO (1995) 29.orr.

²⁸ FERRER REGALES (1986): "La población", 129. orr.

probintzietakoa (%13,62); Aragoikoa (%11,63) eta Errioxakoa (%10,23)²⁹. Emigranteen gehiengoa industrian arituko zen. Beraz, argiki industrializazio prozesuak populazio aktiboa industriara lan egitera aldatzea suposatu zuen nekazal sektorearen kaltetan.

1975. urtean kasik Iruñeko biztanleria aktiboaren erdia II. sektorean aritzen zen, eta industrietako enplegatuen kopuruak are altuagoak ziren Iruñerriko inguruko udalerrietan, hala adierazten duelarik 1975eko erroldak: %58 Galaren, %61 Antsoainen, %47 Burlatan, %52 Uharten eta Atarrabian...³⁰. Egun, kuriosoki Nafarroa eta Iruñerriko langile auzoetan hauteskundeetan PSOE alderdiak boto kopuru esanguratsua izaten jarraitzen du, langile kanpo immigrazioaren isla direlarik Altsasu, Antsoain edo Burlata, Eusko Autonomia Erkidegoan Ezkerraldea edo Katalunian Bartzelonako periferiaren antzera.

Populazioaren hazkundeak, industrializazioak eta landa exodoak hiritartze prozesu indartsu bat ekarri zuten, hiriburuaren eta inguruko udalerrien hirigintzan nabaritu zena. Horrela bada, garai honetan Iruñeko biztanleria hazi ahala auzo berriak eraiki eta sortu ziren, egun ezagutzen ditugunak eta gure bizileku direnak. Hauek, landa eremuko eta beste probintzietako biztanleria jaso zuten auzo langileak, Iruñeko iparraldean, Arga ibaia eta Ezkaba mendiaren artean kokatu ziren nagusiki, inportanteena Txantrea, jada 40ko hamarkadan eraikitzen hasi zena. Gerora, 60ko hamarkadan industrializazio prozesuarekin zonalde honetan langile auzo berriak garatu ziren, San Jorge, Orvina eta Arrotxapea garatuz. Inguruko beste udalerrietan ere etxebizitzak eraiki eta populazioak gora egin zuen Antsoain, Burlata, Atarrabia zein Uharten adibidez³¹. Iruñeko iparraldeko eremuan 90.043 pertsona bizi ziren (1981. urtean) hiriko biztanleriaren %36,92 osatzen zutenak. Haren biztanleria nagusiki langilea zen (%50-55 Iruñeko auzoetan eta %40-50 gainontzeko herrietan) eta zerbitzuetako langile (%20-25 artean). Bestalde, hiriko zentrotik hegoaldera, Arrosadia-Santa María la Real auzo langilea ere garatu zen, haren biztanleria ere nagusiki langilea zelarik (%36,49) eta zerbitzuetako enplegatu (%23,92). Bestalde, Etxabakoitz erdigunetik urrunduriko auzoa, 50eko hamarkadan fluxu migratzaileak jaso zituen lehenengo auzoa izan zen, langile biztanleria aktiboaren ehuneko altuena duelarik (%57,2)³².

Beraz, urte hauetan egungo Nafarroako gizartea eta Iruñeko gizartea egituratu zen. Egun, Iruñerriko gazte askok, immigrante askoren seme-alaba eta bilobek, haien asteburuak *herrian* pasatzen dituzte, "pueblo" delako kontzeptua existitzen dela esan daitekeelarik. Izan ere, Iruñerriko biztanle askok badute oraindik haien guraso edo senideen herriekiko kontaktua, edo hirira joaniko immigranteak herrietara itzuli zirelako edo etxebizitzaren bat badutelako. Are gehiago, *herria* ez dutenak *rara avis* badira Iruñean, gutxiengo bat bere burua *PTV*-tzat duelarik ("de Pamplona de Toda la Vida"

²⁹ FERRER REGALES (1986): "La población", 132. orr.

³⁰ FERRER REGALES (1986): "Las transformaciones de la sociedad navarra: urbanización y agrurbanización", 115. orr.

³¹ FERRER REGALES (1986): "El área metropolitana de Pamplona", 216. orr.

³² FERRER REGALES (1986): "El área metropolitana de Pamplona", 217. orr.

burla jatorra). Honekin esan nahi dut immigrazioa eta landa exodoaren fenomenoak egungo gizartean oraindik guztiz txertaturik daudela, iruindar nortasun berriaren parte direla.

Prozesu honek guztiak noski eraldaketa sozial sakona suposatu zuen Nafarroarendako eta batez ere haren hiriburuarendako. Iruñeko gizartea eraldatu zuen, nekazal eremutik eta beste probintzietatik eratorririko langileek gizarte berri baten egituraketa suposatu baitzuten. Zentzu horretan, 60ko hamarkadatik aitzina eta industrializazio prozesua garatu ahala erregimen frankistaren aurkako eta langileen eskubideen aldeko aldarrikapenak ugaritzen hasi ziren eta II. Errepublikatik existitzen ez zen langile mugimendu indartsua sortu egin zen. Langileak nekazal mundutik etortzen ziren eta ez zuen II. Errepublikako konfliktibitatearen memoriarik. Halere, nahiz eta egoera desberdina izan, langileendako industria munduko aldarrikapen eta gatazka berriak haiek landa munduan ezagutzen zituztenei gehitu zitzaizkien. Horrek azaltzen du hein handi batean langile mugimenduaren egituraketa azkarra eta arrakastasua. Gainera, langile asko metalgintzan eta meatzaritzan aritzen ziren, Potasas enpresa nagusienetakoa izanik eta gatazkatsuen, eta hala, lanpostu horietako lan baldintza gogorrak izaki hauetan lan gatazka eta aldarrikapen inportanteak eman ziren³³.

Nafarroan lehenengo antolaturiko mugimenduak eta langile sindikatuak Langile Komisioak (CCOO), USO (*Unión Sindical Obrera*) edo AST (*Acción Sindical de Trabajadores*) izan ziren. Lehenengo sindikatu hauek, langileen lan eskubideak defendatzearen aldekoak, HOAC edo Vanguardia Obrera Juvenil bezalako talde katolikoetan izan zuten jatorria, edo behintzat haien kideetako asko. Baita erregimen frankistaren hauteskunde sindikaletan parte hartzen zuten eta infiltratze taktikez baliatu ziren haien proiektuak indartze aldera. Hasieran, beraz, lan aldarrikapenak ziren nagusi, tokian tokiko enpresetan soldaten harira edo lan baldintzen ingurukoak. Pixkanaka, ordea, gatazkak ugaritu ahala, grebak eta istiluak areagotuz joan ahala elkartasun sareak joan ziren eratzen enpresa desberdinetako langilegoaren artean. Aipagarriak dira, adibidez, Authik izaniko greba edo 1975ean Potasas fabrikari emanikoa, non hainbat egunez langileak meategian itxi ziren³⁴.

Langile klase batu eta eraginkorra eratu zen hortaz, eta lan baldintzen inguruko aldarrikapenetatik erregimen frankistaren aurkako aldarrikapen politikoetara pasa ziren. Horrela, Iruñea hiri kontserbadore eta atzerakoia zena Erregimenaren aurkako gune potenteenetarikoa izatera pasa zen, langile mugimenduak indar eta pisu handia izatera iritsi zen, eta garai gatazkatsuak izan ziren hiriak eta eskualdeak bizi izan zituenak. Grebak, istiluak, manifestaldiak eguneroko ogi bihurtu zirela esan daiteke, kale borrokak hildakoak eta sufrimendu handia utzi zuen. Baina ezbairik gabe langile mugimendua erabakigarria izan zen Erregimenaren gainbehera edo eraldaketa emateko.

³³ IRIARTE ARESO (1995) 56-57. orr.

³⁴ Potasas fabrikari egoniko greben inguruko lana Díez Monrealek (2012) publikatu izan du.

MARKO DIDAKTIKOA: ARAZOETAN OINARRITURIKO IKASKUNTZA

Ikasgelara Nafarroako industrializazio prozesua gaia eramateko aukeratu dudan metodologia didaktikoa Arazoetan Oinarrituriko Ikaskuntza, edo *Problem's Based Learning* izan da. Izan ere, teknika honek berrikuntza didaktikoaren hainbat alor biltzen ditu, lan kolaboratiboa eta ikasketa prozesu autonomoa ahalbidetzen dituelarik, bai eta Historiaren diziplinari dagokien alorrak ere, ikasleek metodo historikoa jorratzea ahalbidetzen baitu besteak beste.

Horrela bada, lehenik eta behin, metodologia honen jatorriari dagokionean, ez da berriki sorturiko proposamena, baizik eta mundu mailan unibertsitate eta bigarren hezkuntzan aspaldi martxan jartzen den irakaskuntza metodologia da. Izan ere, AOI Ameriketara 60-70.eko hamarkadetan unibertsitate munduan sortu zen. Hain zuzen ere, Kanadako McMaster Unibertsitatean 1960-1970 urteen artean garatu egin zen, medikuntza alorreko hezitzaile talde batek arlo horretako edukiak eta hauen irakaskuntza birplanteatzeari ekin ziotenean haien ikasleen jardura profesionala hobetze aldera. Izan ere, konprobatu zuten klase teorikoetan ikasiriko ezagutzak ez zuela haren aplikazioa ekartzen, ezagutzaren aplikazioaren gabezia sumatu zuten. Beraz, irakasleek programa bat diseinatu zuten non ikasleak talde txikietan banatu zituzten, hauetan ikasleak tutore baten gidaritzapean simulaturiko gaixoekin jarduten zuten. Hauek haien eritasunak edo arazo mediko hipotetikoak aurkezten zizkieten eta ikasleek gaixoekin elkarrizketak eginez, laborategi lanaren bidez eta grabaketaren bidez diagnostikoa burutu behar zuten tratamendu plan bat burutzeko. Hau da, ikasleek arazo bat zuten eta hura ebatzi behar zuten. Prozedura eztabaidan oinarritzen zen, ikasleak ikerketa eta ikasketa prozesu batean murgilduz³⁵.

Gerora, Maastrichten ere irakasleek irakaskuntza-ikaskuntza birplanteatuko zuten, antzeko ekarpenak eginez³⁶. Horrela bada, AOI metodoa sortu zen, ez soilik medikuen formakuntzarako baizik eta gizartearen alorrean lan egiten zuten agente guztiendako. Metodologia berriak haren lehenengo aplikazioak Nuevo Mexicoko Case Western Reserveko Unibertsitateko Medikuntza Eskolan jarri ziren martxan non metodo honetan oinarrituriko kurrikuluma zuen hezkuntza programa egon zen lehenengo aldiz.

Hala, metodologia berri hau hedatuz joan zen unibertsitate munduan eta garrantzia hartzen, Michiganeko Unibertsitateko Giza Medikuntza espezialitateak arazoaren ebazpen metodologian oinarrituriko kurtso bat programatu zuelarik, Maastricht, Newcastle (Australia) medikuntza eskolak sortu zituzten eta AOI aplikatzen hasi ziren, Latinoamerikan Brasilgo unibertsitateetan martxan jarri zen, Mexikoko Nazional Autonomoan, etab.

³⁵ TORP; SAGE (1999) 60.orr.

³⁶ DEL VALLE.; VILLA FERNÁNDEZ (2008) 32. orr.

Pixkanaka, 80ko hamarkadan unibertsitate batzuek kurrikulum programa osoa AOI estrukturan oinarrituz egituratu zuten, eta estruktura mota hau unibertsitate askotan ezarri joan zen. Hortaz, AOI metodologia Medikuntza fakultateetan sortu egin zen eta izan zuen jatorria, pixkanaka unibertsitate munduan hedatuz joan zen eta hala metodo hau beste hezkuntza alorretan ere martxan jartzen hasi zen. Egun, beraz, unibertsitate askotan aplikatzen den metodologia dugu, haren sorreratik diziplina desberdinetan martxan jarri baita: Psikologian, Pedagogian, Ingeniaritzan, Informatikan, Zuzenbidean, Historian, Hezkuntzan... Haren arrakasta dela eta institutuetan, zein ikastetxeetan ere aplikatuz joan izan da³⁷.

Baina, zer da Arazoetan Oinarrituriko Ikaskuntza? Zertan datza? Arazoetan Oinarrituriko Ikaskuntza, haren izenak dioen bezala, arazoak ikertu eta konpontzeko antolaturiko esperientzia pedagogikoa da. Horrela bada, arazoa eta haren erantzuna dira jardueraren sorrera eta amaiera definitzen duten binomioa, non ikaslearen parte hartzea eskatzen den arazoa aztertu eta konponbidea emateko. Ikasleak arazoaren erantzuna bilatu behar du, ikertu, estrategia multzo batez baliatu behar da. Irakaslearen papera laguntzailearena da, ikasleak bilaketa gidatua izanen du, irakaslea orientatzailea da, soilik ezagutzaren laguntzaile. Ikaslea da ikasketa prozesuaren zentro, haren protagonismoaren bitartez edukiak eta kontzeptuak bereganatuz. Ezagutza eraikitzen du horrela, ikasketa ikasleak alde aurretik duen ezagutzaren berrazterketa, berrantolaketa eta aldaketan datza, ezagutza eskema berriak garatuz³⁸.

Arazo-egoera da metodoaren zentroa, ikasleak erakartzen dituen hari erantzuna ematera, ikertzera, perspektiba eta ikuspuntu desberdinetatik aztertzeraz. Ikasleek erantzun egokia bilatu behar diote arazo horri, azken finean haren ikasketa prozesua zuzenduz. Orduan, ikasleek lan autonomoa eta parte hartzea bultzatzen duen metodoa da, ikaslea delarik ikasketa prozesua garatzen duena, bera izan behar baita informazio iturrietara jotzen duena eta hipotesiak egiten dituen. Ez da, beraz, irakaslea informazioa eta ezagutzaren emale.

AOIren bidez, arazoaren bidez, ikasleek irakasleak planteaturiko gaia landuko dute, kurrikulumean eta urteko programazioan egonen dena. Gainera, arazoak errealitatearen parte izan behar duten heinean, ikasleei haien eguneroko bizitzan lagunduko die.

Metodologia hau, beraz, konstruktibismoan oinarritzen da, ikasleak ezagutza eraikitzean datza. Metodologia honek jada XIX. mendetik garaturiko "Eskola Berria" edo eskola aktiboaren oinarriak biltzen ditu, zeinaren arabera ezagutza eta edukien transmisio hutsetik, irakaslearen nagusigotik ikaslea zentro izatera pasako zen. J. Deweyk (2004) jada AOI metodoan aurkitzen diren printzipio batzuk zehaztu zituen, irakaslea ez delarik irakasten duena baizik eta ikaslea da ikasten duena helburuak, erritmoa eta baliabideak zehazten baititu. Irakaslea gidari izatera pasatzen da, taldeko partaide izatera, jardueraren zuzendari da. Dewey eta Kilpatrickek "Proiektuen Metodoa"

³⁷ DEL VALLE.; VILLA FERNÁNDEZ (2008) 32. orr.

³⁸ SOLA AYAPE (2005) 40-41.orr.

gauzatu zuten, ikasleen talde txikiak lan kolaboratiboa amankomunean burutuko lukeelarik. Talde lanaren abiapuntua hala, arazo egoera bat litzateke, ikasleak hura konpontzera bultzatzen dituelarik. Gero, egoera azaltzeko jarduera ordenatzen da, interpretatu, baloratu daitekeelarik eta aldaketak egin. Azkenik, jakintza lortzen da. Deweyrendako benetako interesak ahalegina bultzatzen du, ekiteko eta jakiteko nahian oinarriturik, interesa are gehiago areagotuz. Gerora, Cousinetek (1967) 1940. urtean proposatuko zuen taldekako *lan askearen metodoa*, irakaslea informazio iturri bakarra ez delarik, talde bakoitzak jasoriko informazioaren erabileran laguntzen duelarik soilik. Taldean eztabaida sustatzen den aldetik, lan indibiduala baino hobea da³⁹.

Piagetek (1987), konstruktibismoaren sortzaile nagusietako bat eta nerabezaroaren garapen psikokognitiboaren teorizatzaileak, uste zuen arrazoiaren hezkuntza suposatzen zutela elkartrukaketak eta kolaborazioak. Horrela bada, informazioaren trukaketak, ikasle bakoitzak galdetzeko eta hitz egiteko duen aukerak edukiak bereganatzea ahalbidetzen dute, ez modu memoristiko hutsean baizik eta bakoitzak bereganatuz. Gainera, taldearen giro afektiboa motibaziorako gehigarri izan daiteke. Ikaslearendako motibagarria eta estimulantea suerta daiteke talde txikian ekarpena propioak egitea. Aldi berean, taldean bertan sozializatzeko helburua duelarik. Hortaz, Eskola Berriaren sorrerarik oraindaino, hainbat pedagogok jo dute teknika pedagogiko sozial hau martxan jartzera⁴⁰.

AOI metodoa ongi prestatu eta oinarritu behar da, gaia argi edukirik, kurrikulumean haren kokapena ere ezarririk eta helburuak argi izaki, hau da, metodoarekin zer nahi dugun lortu eta nola, eta hura nola ebaluatuko den. Irakaslearen aldetik lan dezente eskatzen da eta erantzukizun bat ere, berak ongi planifikatu behar du helburuak zeintzuk diren, arazoa zein izanen den, taldeen banaketa edo klasean orduak eskaini behar zaizkion edo ez.

Lehenik eta behin, beraz, arazoa ongi definitu behar da, eta irakasleak hainbat aspektu kontuan hartuz prestatu behar du lana. Hasteko, AOIn arazoek ikaslearen interesa piztu behar dute, kontzeptuak eta helburuak aztertzea motibatuz. Arazoak kurtsoko helburuekin loturik eta eguneroko bizitzako arazoekin loturik egon beharko luke. Duchen arabera, arazoek hurrengo ezaugarriak izan behar dituzte: ikasleak erabakiak hartzea edo iritzia ematera zuzendu behar dituzte, planteaturiko galdera irekia behar du izan, gai, ezagutza jakin batekin loturik; kurtsoko helburuen edukiak arazoen diseinuan egon behar dira. Arazoa konplexua izan behar da, amaiera irekiarekin, motibazioa piztu behar du, errealista izan. Egungo errealitatearen parte izan, ikasleen eguneroko bizitzarekin loturik egon daitekeena.

Bestalde, Des Marchaisek (1999) AOIren egituraketan bederatzi irizpide ezarri zituen: pentsamendua, analisia eta arrazoimena sustatzea, norberak kontrolaturiko ikasketa burutzea, aurreko ezagutza erabiltzea, testuinguru errealista planteatzea, ikasketaren helburuak azaltzea, kuriositatea piztea, testuinguru zabalak ziurtatzea eta

³⁹ DEL VALLE; VILLA FERNÁNDEZ (2008) 31.orr.

⁴⁰ DEL VALLE.; VILLA FERNÁNDEZ (2008) 32.orr.

hiztegi egokia izatea. Gainera, arazoak aurreko ezagutzetan oinarriturik egon behar dira ere, hura baita AOIren helburuetako bat, egoera erakargarri batean aurkeztuak, ikasleak ikasketa xedeetarantz eta unitatearen gairantz zuzenduz⁴¹.

Ikasleek erantzun edo konpondu beharreko problema testuinguru, egoera edo eszenario baten bidez aurkeztu behar du irakasleak. Honakoa, testu baten bidez, irudi batekin, grabazio edo bideo baten laguntzaz aurkeztu daiteke. Honen xedea argi eta garbi izan behar du ikasleek ebatzi beharreko egoera azaltzea, haiek ongi ulertzea gero hura ebazteko.

Honetaz aparte, AOIren gakoetako bat da lan kolaboratiboan oinarritzen dela, hau da, ikasleak talde txikietan antolaturik proiektua burutzean datza. Beraz, ez da lan individuala ez da ikasle bakoitzak bere kabuz egin beharrekoa, ez, beste taldekideekin kolaboratuz burutu beharreko lana da eta horregatik ere AOI metodoa interesgarria eta baliagarria suertatzen da. Besteekin eta besteengandik ikasteagatik ezaugarritzen da metodoa. Irakasleak haien ikasketa prozesuaren erantzule dira, lan egin behar dute soilik baina beharrezkoa da ere amankomunean jardutea. Gainera, talde lana izatean AOIk ahalbidetzen du rol desberdinen banaketa, lana hobeki antolatze aldera ikasleek paper desberdinak bete ditzakete lan prozesuan zehar. Modu honetan, ikasleek paper desberdinak joka dezakete: lanen idazkaria, tutorea, eztabaiden koordinatzailea...⁴².

Bestalde, taldeen osaerak zailtasunak sor ditzake, irakasleak talde heterogeneoak sortu beharko lituzke eta ahal den neurrian hauen jarduna egokia izatea, armonia egotea taldekideen artean, izan ere maiz arazoak sor daitezke talde barnean. Eta noski, kontuan hartu beharra dago adinaren arabera hauek kudeatzea desberdina dela, nire kasu hipotetikoan gazteendako AOI aurkeztean zailtasun hauek areagotu daitezkeelarik.

Behin arazoa planteaturik eta taldeak osaturik, irakasleak AOIren estruktura jarraitu beharko luke. AOIren estruktura zazpi pauso edo fasetan sailka daiteke. Lehenik, esan bezala, arazoa aurkeztu egiten du irakasleak, arazoaren egoera; gero, terminologia argitzen da; ondotik faktoreak bereizi egiten dira; hipotesia sortu egiten da; ezagutzen ez diren elementuak identifikatu egiten dituzte ikasleak; beharrezkoa den informaziora jotzen dute eta, azkenik, arazoaren ebazpena burutzen dute edo arazo berriak identifikatzen dituzte, jasoriko ezagutza arazo berriei aplikatuz.

Orduan, ikasleak haien kabuz, taldeka, arazoa aztertu behar dute, haien aurreko ezagutzak plazaratu, lehenengo hipotesiak bota eta hura frogatze aldera informazioa eskuratu. Gaia lantzeko sakondu, iturri idatzietara jo, interneteko baliabidetara, bideo zein ahozko iturriak erabili. Irakasleak bien bitartean galderak eginez edo egiten dutena kuestionatuz lagundu dezake, baina bere rola ikusle hutsarena izan behar da, ez du zuzenean parte hartu behar, ez die tresnak edo erantzunak eskaini behar. Irakasleak laguntzen du, ikuskaria da, baina hurrengo auziez arduratu behar da: ikasleek arazoari

⁴¹ DEL VALLE; VILLA FERNÁNDEZ (2008) 43.orr.

⁴² MANZANARES MOYA (2008) 21. orr.

nola aurre eginen lioketen, ze zailtasunekin aurkitu daitezkeen, zer laguntza edo baliabide izan daitezkeen lagungarriak lan autonomoa bultzatzeko... taldearen eboluzioa egokia bermatu... Irakasleak ikasketa prozesua azaldu behar du, ez ongi dakien gaia azaldu, baizik eta ikasleen ikasketa prozesua azaldu, helarazi, haiek lan egin dezaten⁴³.

Horrela bada, ikasleak bere kabuz ikasi dezake irakaslearekiko menpeko izan gabe. Ikasleak berak autoerregulaturiko ikasketak saiakera eskatzen du, lana eta jarrera aktiboa. Ikasleek arazoaren aurrean, argumentuetan oinarrituz klasekideekin eta irakaslearekin iritziak kontrastatu egin behar dituzte, prozesuan zehar ikasi dutena adierazi eta emaitzak, partzialak zein amaierakoak, ebaluatu. Inportantea dena eta sekundarioa denaren artean bereizi behar dute eta aurreko ezagutza eta edukiak lotu ezagutza berriekin lotura esanguratsuak eginez. Horrela bada, behin informazioa eskuraturik eta hipotesia azalduz, taldean ideiak kontrastaturik, arazoa konpondurik edo ez, irakasleak lana ebaluatzerara joko du, lan idatzi baten bidez edo aurkezpen baten bidez ebaluatuko lukeelarik.

Dena dela, inportanteena da prozesua jarraitzea, hau da, arazoari irtenbidea ematea ez da lanaren azken helburua, ezagutza bereganatzean datza metodoa eta honen eraikuntza:

"Es importante señalar que el objetivo del profesor no se centra en resolver el problema sino en que sea utilizado como base para identificar los temas de aprendizaje. A lo largo del proceso tutorial (trabajo en grupo) los alumnos deben desarrollar la habilidad de aportar y recibir críticas orientadas a los procesos de mejora personales, que involucra procesos, procedimientos y actividades en tres dimensiones: cognitiva, conductual y contextual."⁴⁴.

⁴³ MANZANARES MOYA (2008) 25.orr.

⁴⁴MANZANARES MOYA; PALOMARES AGUIRRE (2008) 99. orr.

MARKO KURRIKULARRA

Nire proposamen didaktikoak Nafarroako industrializazio prozesua jorratzen duenez, Batxilergoko Nafarroako Geografia eta Historia hautazko irakasgaien aplikatzeko dago diseinaturik. Irakasgai hau berriki onarturiko, 2015eko LOMCE legediaren kurrikulumean azaltzen da, komunitateko hautazko irakasgai gisa. Irakasgai honetan Nafarroako Foru Komunitateko historia eta geografia lantzen dira, astean lau saiotan, eta Batxilergoko bi kurtsuetan eskaini dezakete institutuek.

Horrela bada, hurrengo orrialdeetan kurrikulumak biltzen dituen eta nire proposamenari hobekien egokitzen diren edukiak, helburuak, gaitasunak, ebaluazio irizpideak eta ikasketa estandar ebaluagarriak azalduko ditut. Nik jorratzea planteatu dudan gai historikoarekin lotura gehien dituztenak bildu ditut, beraz, multzo desberdinetako eduki zein ebaluazio irizpideak paratu ditut. Modu honetan, diziplina eta alor desberdinetakoak diren puntuak zehaztu ditut. Geografia, demografia, historia zein gizarteari dagokien puntuak bildu ditut, diziplina hauen arteko loturak eginez eta garatzeko parada emanez.

Lehenik eta behin kurrikuluma hamabi eduki bloke nagusitan banaturik dago, haietatik lau geografiaren azterketari dagokienak, eta beste zortzi historiari dagokienak. Lehenengo eduki blokea, beraz, nagusiki Nafarroako geografia eta ingurunea aztertzea zuzendurik dago, nahiz eta lehenengo blokea "Nafarroaren nortasunaren ezaugarriak" izena duenak, irakasgaiaren sarrera modukoa izan. Beste hiru blokeak 2. multzoa "Natur ingurunea", 3. multzoa "Populazioa eta hiri sistemak" eta 4. multzoa "Produktzio sektoreak" dira, demografia zein ekonomia lantzen direlarik nire proposamenarekin bat etorritik. Gero, gainontzeko zortzi eduki multzoak historiari dagokie guztiz, hauek hurrengoak dira: 5. multzoa "Historiaurretik musulmanen nagusitasunera bitarte", 6. multzoa "Iruñeko Erresuma", 7. multzoa "Nafarroako Erresuma 1512ra arte", 8. multzoa "Nafarroa Monarkia Hispanikoan sartua (XVI-XVIII. mendeak)", 9. multzoa "XX. mendea, Gerra Zibilerarte", 10. multzoa "XIX. mendea", 11. multzoa "Gerraondotik Trantsizio demokratikora" eta 12. multzoa "Gobernu demokratikoak gaur egundaino".

Horrela bada, nahiko gaitegi zabala eskaintzen duen kurrikuluma dugu hau, batez ere historia alorrean zentratzen dena. Horrek proposamenaren aplikazioa oztoka dezake, eta ongi pentsatu behar genuke nola burutu eta zer gaiari garrantzi gehiago eman ondotik zehaztuko dudana bezala.

Dena dela, proposamenaren gai historikoa ongi biltzen du kurrikulumak, proposamenaren jorratzen diren hainbat gai, prozesu eta gertakari eduki bloke desberdinetan aurkitu daitezkeelarik. Honela, 3. multzoa, 4.a eta 11.a landu ditzake nire proposamenak. Hirugarren multzoa populazioa eta hiri sistemak buruzkoa da, beraz, bat dator guztiz proposamenarekin, populazioaren bilakaera, populazioaren banaketa espaziala eta hirien egituraketa aztertzen direlako, Iruñeko hiriarri garrantzi gehiago emanez. Gero, laugarrenean produktio sektoreak dira aztergaia, ekonomiaren sektoreak aztertzen direlarik eta populazio aktiboaren banaketa sektoreka. Bigarren sektorea

azaltzen da, industria eskualdeen banaketa eta industria sektore nagusiak aztertu daitezkeelarik nire proposamenarekin bat. Historiara hurbilduz, 11. multzoak "Gerraondotik Trantsizio demokratikora", nik aztergai ditudan 60 eta 70eko hamarkadak jorratzen ditu, gertaera politikoak ez ezik aldaketa sozial eta demografikoei erreparatuz.

Halaber, LOMCEren kurrikulumak ebaluazio irizpideak eta ikasketa estandar ebaluagarriak aurkezten ditu. Hauek nire ustez, zehatzegiak dira, LOE legediarekin ebaluazio irizpideak orokorragoak ziren, gaitegi zabalagoa eta alor desberdinak lantzeko parada eskaintzen zutelarik. Orduan, kurrikuluma zehatzegia da nik uste eta oztopatzen du horrelako lanen aplikazioa. Beherago jarriko ditudan ebaluazio irizpideak eta ikasketa estandar ebaluagarriak bat etortzen dira proposamenaren gaiarekin:

Ebaluazio irizpideak eduki multzoka:

- 3. multzokoak:

1. Nafarroako populazioari dagokionez, ezagutzea nola banatzen den populazioa udalerrien eta eskualdeen arabera, eta zein den dentsitatea, eboluzioa, migrazio mugimenduak eta langabezia datuak.
3. Ezagutzea zein den Iruñeko hiriaren planoaren eta Iruñerriko metropoliaren jatorria eta eboluzioa. Ezagutzea zein den Tuterako planoaren jatorria eta eboluzioa.

Ebaluazio irizpide hauen bidez populazioaren banaketa eta bilakaera aztertu daitezke. Gainera, lehenengo ebaluazio irizpideak migrazio mugimenduak ere biltzen ditu, industrializazio prozesuarekin lotura estua izan zutenak, beraz, oso ongi egokitzen da. Gero, Iruñeko hiriaren garapena eta egituraketa jorratu daiteke hirugarren ebaluazio irizpidearekin.

- 4. multzokoak:

2. Industriako hiru eskualde handiak bereiztea. Nafarroako energia berriztagarrien garrantzia ezagutzea.
3. Nafarroako garraio sistemak ezagutzea, baita komunikazio teknologien eboluzioa eta barneko eta kanpoko merkataritzarena ere. Nafarroako eremu turistikoak kokatzea, baita unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak eta osasun etxeak ere.

Bigarren ebaluazio irizpidearekin industriako hiru eskualde handiak jorratzen dira, beraz, ongi dagokio proposamenari. Bestalde, hirugarren ebaluazio irizpidea zabalagoa da, gai gehiago azaltzen ditu eta hirugarren sektorearekin loturikoak, baina, garraio sistemen egituraketa eta merkataritza azaltzean, proposamenean hauek jorratzea aproposa deritzot.

- 11. multzokoak:

1. Nafarroaren egoera ekonomikoa ulertzea gerraondoan. Diktadura frankistaren euskarriak ezagutzea eta erregimenaren oposizioaren ekintzak Francoren heriotzara arte.

2. Hirurogeiko hamarkadako industrializazioaren arrazoiak eta Nafarroaren garapen ekonomikoarenak ulertzea.

Lehenengo ebaluazio irizpidea jarraituz industrializazioaren lehenengo kimuak jorratu daitezke, eta bestetik, erregimenaren aurkako mugimenduak lantzeko parada eskaintzen du. Bigarren ebaluazio irizpidea, bat dator guztiz proposamenarekin, oso egokia da landuko den gai historikoarekin, kausak eta ondorioak aztergai daudelarik.

Honetaz gain, Ikaskuntza Estandar Ebaluagarriei dagokienean, honakoak landu daitezke hurrenez hurren:

- 3. multzokoak:

1.1. Egungo datuekin, Nafarroan handienak diren zortzi herrietako populazioa dakarren grafikoa prestatu eta iruzkintzen ditu. Nafarroako populazioaren banaketaren mapa prestatu eta iruzkintzen du.

1.2. Egungo datuekin, eskualdeen arabera dauden udalerrien kopuruarekin grafiko bat prestatu eta iruzkintzen du. Populazio motak ere kokatu eta iruzkintzen ditu (eremu kantauriarra eta atlantikoa, Pirinioetako eremua, Iruñerria, Irunberri-Agoizko aldea, Ekialdeko Erdialdea, Mendebaldeko Erdialdea eta Erribera).

1.3. Nafarroako populazio dentsitatearen mapa prestatu eta iruzkintzen du.

1.4. Egungo datuekin, Nafarroako populazioaren eboluzioaren grafiko bat prestatu eta iruzkintzen du, 1.900etik gaurdaino, baita jaiotze, heriotza eta hazkunde begetatiboaren tasarena ere.

1.5. Nafarroako populazioaren 1900eko, 1975eko eta egungo piramidea konparatu eta iruzkintzen du. Ondorioak ateratzen ditu populazioaren etorkizunari buruz.

1.6. 1900etik gaurdainoko migrazio mugimenduak deskribatu eta azaltzen ditu. Beste autonomia erkidego batzuetan bizi diren nafarren datuak, beste autonomia erkidego batzuetan jaio eta egun Nafarroan bizi direnenak eta atzerriko etorkinenak iruzkintzen ditu, baita nola banatzen den ere eskualdeen arabera.

3.2. Iruñerriko metropolia mugatu, ezagutu eta deskribatzen du: Alde Zaharra, Zabalgunek eta hiriaren periferia. Eboluzioa iruzkintzen du.

- 4. multzokoak:

2.1. Nafarroako mapa batean industriako hiru eremu handiak kokatzen ditu, baita honako hauek ere: industriako eremuak, meategiak eta harrobiak, parke

eolikoak, biomasa plantak, planta fotovoltaikoak, zentral termikoak, oliobideak eta gasbideak.

2.2. Grafiko bat prestatzen du Nafarroako industriaren egiturarekin, egungo datuak erabiliz.

- 11. multzokoak:

2.1. Nafarroako industria bultzada berantiarra ezagutzen du, eta haren sektore nagusiak kokatzen.

2.2. Nafarroako demografian eta hirigintzan hirurogeita hamarreko hamarkadan izandako aldaketak aztertzen ditu eta gatazka sozialak ezagutzen.

Bi Ikaskuntza Estandar Ebaluagarri hauek dira nire ustez aproposenak, proposamenean biltzen direnak eta ikasleek jorra dezaketenak.

Hortaz, ebaluazio irizpide eta ikasketa estandar ebaluagarri hauek konkretuegiak dira, oso zehatzak eta klasean burutzeko jarduera desberdinak planteatzen dituzte AOIrekin bateraezinak direnak. Proposamenean jorratzen den gaiarekin lotura dute batzuk, baina esan bezala, oso zehatzak dira eta proposamen didaktiko honen metodologia eta dinamika guztiz desberdina da.

Bestetik, LOMCEk zehazten dituen helburu orokor batzuk erdietsiko dituzte ikasleek proposamenarekin:

-Irakurketa, ikasketa eta diziplina azturak sendotzea, ikaskuntza behar bezala aprobetxatzeko beharrezkoak diren baldintza modura eta pertsona bezala garatzeko baliabide modura.

-Gaztelania eta, kasua bada, euskara menderatzea, ahoz nola idatziz.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eraginkortasunez eta arduraz erabiltzea.

- Mundu garaikidearen errealitateak, haien aurrekari historikoak eta haien bilakaeraren faktore nagusiak ezagutu eta kritikoki balioestea. Bere inguru sozialaren garapen eta hobekuntzan elkartasunez parte hartzea.

-Nafarroako ondare natural, historiko, artistiko eta kulturala eta berezia egiten duten hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasuna ezagutu, balioetsi eta errespetatzea.

Honela, ikasleek ikasketa autonomoa eta lan kolaboratiboa lortu behar duten heinean, kurrikulumak zehazten dituen espiritu kritikoaren garapena, gatazkei aurre hartzea, edo berdintasun baloreak sustatzea helburuak lortuko dituzte ere. Baita badago helburu bat oso ongi dagokiona proposamenari, Nafarroako ondare historikoa zein kulturala ezagutzeari erreferentzia egiten diona. Gainera, proposamenarekin informazioa interpretatu eta iturri historikoak ezagutuko dituzte ikasleek, kurrikulumak

azaltzen duen bezala, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia eraginkortasunez eta arduraz erabiliko dituztelarik.

Dena dela, LOMCE kurrikulumean irakasgaiaren helbururik ez daude, aipaturiko horiek orokorregiak dira, nire ustez. Aurreko legediarekin, aldiz, LOEren kurrikulumean irakasgaiaren helburuak bazeuden eta horietako batzuk hobeki egokitzen ziren proposamenarekin. Hala ere, helburu orokorretako batzuk lotura dute proposamenaren helburuekin, geroago, hauek aztertzean konprobatuko den bezala.

Azkenik, aipatu beharko nuke proposamen honekin ikasleek LOMCEk zehazten dituen gaitasunak garatuko lituzketela:

- Hizkuntza komunikazioa: idatzizko lanaren bidez eta ahozko lanaren bidez garatuko dute gaitasun hau.
- Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak: demografia edo migrazio mugimenduen estatistikak aztertuz garatu dezakete ikasleek.
- Gaitasun digitala: interneten informazioaren bilaketaren bidez garatuko dute ikasleek.
- Ikasten ikastea: lan autonomoak eta talde lanak ahalbidetuko du.
- Gaitasun sozial eta zibikoak: iraganarekiko enpatia ikasleek garatuko duten heinean eta migrazioak lantzean zein aldaketa sozialak aztertzean garatuko dituzte.
- Ekimena eta ekintzailtza: informazioaren bilaketak eta lan prozesuak berak suposatuko du lan autonomoaren garapena.
- Kontzientzia eta adierazpen kulturalak: aldaketa demografiko eta sozialei erreparatzea, hala nola iragana aztertzeke enpatiarara jotzeak ahalbidetuko dute gaitasun hauek bereganatzea.

Kurrikulumaren antolaketa eta edukiei dagokienean, esan beharra dut ez dutela errazten nire lanaren aplikazioa. Hau da, nire ustez, kurrikulum berri honek gaitegi zabala eskaintzen du, printzipioz, egokia izan daitekeena ahalik eta gai anitzagoak landu ahal izateko, baina, bestalde, ebaluazio irizpideak eta Ikaskuntza Estandar Ebaluagarriak oso zehatzak dira, konkretuegiak, eta horrek oztopatzen du beste jarduerak aurrera eramatea. Orduan, kurrikulumaren estutasunak beti oztopa dezake horrelako proiektuak burutzea. Dударik gabe, kurrikuluma dagoen bezala jarraitu behar bada, hots, eduki multzo guzti horiek jorratuz eta ebaluazio irizpide zein aipaturiko IEE horiek guztiak landuz, ezin izanen zen posible AOI hau gelara eramatea. Beraz, kurrikuluma moldatu behar da, eta ahal den neurrian alor batzuei garrantzi gutxiago eman, beste batzuetan zentratu nire proposamena landu aldera.

Orduan, esan bezala, kurtsoan eman beharreko edukiak moldatu beharko nituzke batzuei garrantzi gehiago emanez besteen kaltetan. Geroago, proposamenean zehaztuko dut zein izanen den lanaren denboralizazioa baina, nik uste gutxi gora behera hilabete batean klasean burutzeko lana izan daitekeela, aipaturiko hiru eduki multzo horiek landu daitezkeelarik.

Dena dela, kontuan harturik hau komunitateko hautazko irakasgaia dela, "libreagoa" dela esan daiteke, kurrikulumaren jarraipen zorrotzetik alendu daitezkeelarik irakasgaia modu autonomoago batean planteatuz.

PROPOSAMEN DIDAKTIKOA: NAFARROAKO INDUSTRIALIZAZIO PROZESUA BATXILERGOAN

Aztertu dugun bezala, AOI metodo egokia izan daiteke nire proposamena garatzeko, eta horretan oinarrituko da. Hasteko, argi utzi beharra daukat hemen proposaturiko lana kasu hipotetiko bat dela, hots, ez dudala praktikara eraman. Izan ere, institutu batean praktikak burutu arren, denbora faltaren ondorioz zein beste motiboen ondorioz ez nuen proposamen didaktiko hau klase batean aurrera eraman. Dena dela, nire proposamena ongi funtsatzen saiatuko naiz, praktikara eraman ahal izan daitekeelarik.

Lehenik eta behin, AOI honetan proposaturiko gaia zein den azalduko dut: Nafarroak XX. mendearen bigarren erditik aurrera bizi izan zuen industrializazio prozesua eta horrek Iruñean nagusiki eragin zituen ondorio demografiko eta sozialak.

Arazoetan Oinarrituriko Ikaskuntza metodologia didaktikoa aukeratu izan dut hainbat arrazoiengatik. Master Amaierako Lan honen helburuetako bat metodologia berritzaile baten bidez proposamen didaktikoa garatzea denez, nik uste AOIk ongi betetzen duela funtzio hori. Izan ere, AOIk konstruktibismoaren aspektu anitz biltzen ditu. Hau da, metodo honen bidez eta nik planteatu lanaren bidez ikasleak dira haien *ezagutza* eraiki behar dutenak, haien ikasketa prozesua aurrera eramanez. Haiek izan behar dira aktibo, eta lan autonomia bideratu behar dute. Honek hura ahalbidetzen du, irakaslea ez baita eduki eta ezagutza guztiaren transmisore, ikasleak izanen baitira informazio iturrietara joko dutenak. Haiek izanen dira hipotesiak eta galderak planteatuko dituztenak eta haiek noski erantzun beharrekoak.

Gainera, metodologia hau lan kolaboratiboan oinarriturik dagoenez, proposa iruditzen zait ikasleen arteko kolaborazioa sustatzeko. Hortaz, ez da soilik bakoitzaren lan indibidualean oinarritzen, ez, ikasleak elkarrekin aritu behar dira, bakoitzak ahal duen ekarpena eginez. Bata bestearengandik ikasiz eta lagunduz. Hori litzateke noski idealena, eta lanaren ondorio zein xedeetako bat aldi berean. Zaila izan arren, ordea, metodo honek hura ahalbidetzen du. Gainera, kontuan hartu beharra dago irakaslea ez dagoela guztiz at, presente dago eta arazo larriak suertatzen badira haiek bideratzeko beti prest egon behar da.

Bestalde, AOI hautatu dut ikasleendako motibagarria eta erakargarria den metodoa izan daitekeelako. Zentzu horretan, proposatu dudana gai historikoa nik uste baliagarria dela eta bat datorrela proposaturiko helburuekin. Nafarroako XX. mendeko historiaz ariko den lan bat aurkeztuko dut, egungo Nafarroa modernoaren garapenaren jatorri. Nire lana Nafarroako Batxilergoko Institutu bateko taldeendako proposaturik egonik nik uste erakargarria izan daitekeela gertutasunagatik. Ez da, beraz, hemendik urrun gertatu den fenomeno edo prozesu bati buruzko lana burutu behar dutena ikasleek, haien errealitate sozial eta geografikoari buruzko lana baizik. Motibagarriagoa izan

daiteke beraz, gertutasun fisiko horri dagokionean, baita historikoari dagokionean ere, lan honetan nik denboran gertuko prozesu bat aztertzea planteatzen baitiet. Azken finean, haien aitatxi-amatxi eta gurasoen bizitzan eragin izan zuen prozesu bat aurkezten dut, haiendako gertua izan daitekeena, ezagutu dezaketena. Industrializazio prozesu hutsa ez ezik, haien auzoen historia ere jorra dezakete, prozesu historiko horren zantzuak oraindik fisikoki presente badaudelako gure karrketan.

Horretaz gain, AOIk eta gai historiko honek historia diziplinaren hainbat alor lantzeko aukera ere eskaintzen dute. Ikasleak ikertzailearen papera jokatzeko historialariaren metodoaz jabetu ez ezik, erakargarria izan daiteke haiendako. Horregatik ere aukeratu dut metodologia eta gaia hauek, ikasleek posible izan dezaten metodo historikoa aitzina eramatea, iturri idatzietara joz edota haien senide eta ezagunen ahozko iturriak jasoz.

Nire proposamenarekin ere historian funtsezkoa den aspektu bat landu daiteke, aldaketa historikoarena, aldaketa eta jarraipenak hain zuzen ere. Izan ere, planteaturiko gaian hori da nabarmentzen dena, Nafarroak bizi izan zuen aldaketa ekonomiko, sozial, politiko eta demografikoa, gizarte baten erabateko aldaketa.

Egoera eta gizartearen aldaketa eta jarraipena gizateriaren historian etengabeak izan dira. Hala, historia eta geografia lantzen ditugunean aldaketak eta jarraipenetan oinarrituz izan behar da, aurkakoak diren kontzeptuak ez ezik osagarriak direnak⁴⁵. Ikasleek argi izan behar dute gauzen aldaketaren ideia, mundua eraldatzen dela, garai eta gizarte desberdinen arteko desberdintasunak azaldu. Aldaketa eta jarraipena funtsezkoak dira iragana orainarekin lotu eta azaltzeko, orainera jo behar dutelarik iragana azaltzeko. Aldaketa etengabea da gizarte batean, eta hura garapen edo iraultza baten gisan adierazi daiteke. Lan honen bidez ikasleek ez dute soilik 60 edo 70. hamarkadetako gizartea ezagutuko, soziologia hutsa egitea ez da xedea, baizik eta nola iritsi garen egungo gizartera, zergatik burutu ziren aldaketa horiek, zer aztertu beharko litzateke hura jakiteko. Horrela nik planteatu dudana gaiarekin ikasleek modu adierazgarri batean jorratuko lukete aldaketa historikoa.

Azkenik, nire proposamena egokia izan daiteke geografia eta historia uztartzen dituelako, irakasgaiaren kurrikulumarekin bat eginez. Izan ere, industrializazio prozesuaren garapena azaltzerakoan ikasleek Nafarroako geografia jorratuko dute industriaren banaketa espazialari erreparatzean. Horrela, argiki ikusiko dute zonalde geografiko desberdinen arteko kontrastea, elikagai eta kontserben industriara zuzendurik egonen den Erribera siderurgia eta basogintzarekin loturik egonen den Mendialdearen kontra. Gainera, Iruñeko hiriaren morfologia landuko lukete, hirigintza eta biztanleriaren banaketari buruzko nondik norakoak ezagutzeko.

⁴⁵ GARCÍA RUIZ.; JIMÉNEZ LÓPEZ (2014) 17. orr.

PROPOSAMENAREN HELBURUAK

Marko kurrikularrean azaldu dut zer eduki, ebaluazio irizpide eta ikasketa estandar ebaluagarri egokitzen diren proposamen didaktikora. Baita proposamenarekin bat datozen LOMCEk zehazten dituen helburu orokorrak eta gaitasunak zehaztu ditut. Orduan, orain nire proposamen didaktikoaren helburuak azalduko ditut, LOMCEren helburu orokorretako batzuekin lotura dutenak. Hona hemen hurrenez hurren ikasleek erdietsi beharreko helburuak:

- Nafarroako industrializazio prozesuaren sorrera eta garapenaren zergatiak eta kausak ulertzea eta ezagutzea.
- Industrializazio prozesuaren ondorio ekonomiko, politiko eta sozialak ulertzea, Nafarroako gizartean eta errealitatean izan zuen inpaktua aztertzea.
- Ikerketa historikoa burutzea metodo historikoa ezagutuz.
- Iturri historikoak ezagutzea.
- Informazioa interpretatzea eta ebaluatzea, gertaera eta iritziak bereiziz, testigantzen gabeziak ikusiz, aurreiritziak eta partzialitateak antzemanaz.
- Ezagutza historikoaren ondorioak aurkeztea.
- Iraganeko gertakariak azaltzeko enpatia erabiltzea.
- Lan kolaboratiboa burutzea.
- Lan autonomoa burutzea.

Ikasleek erdietsi beharreko helburuak, nagusiki AOIren gai historikoaren azterketara zuzendurik daude. Modu horretan, helburu gehienak badaude loturik historiaren diziplinarekin. Ikasleek Nafarroako industrializazio prozesuaren kausak eta faktore desberdinen loturak aztertuz, kausalitatea landuko dute, historia alorrean zein beste hainbat irakasgaietan eta bizitzako alorrean inportantea dena. Baita industrializazio prozesuaren ondorio demografiko, ekonomiko zein sozialak ulertu eta ezagutu behar dituzte. Horretaz aparte, historialariaren paper xumea ere jokatu behar dute ikasleek, metodo historikoaren berri izan behar baitira, ikerketa historikoa burutuz. Horrela, horrekin loturik, iturri historikoak ezagutu eta erabili behar dituzte eta informazioa interpretatu eta ebaluatzen jakin, azkenik garaturiko ezagutzaren ondorioak aurkezteko. Iraganeko gertakariak aztertzerako orduan, enpatia garatu beharko dute, elkartasun, errespetuzko eta berdintasunezko baloreak garatuz. Bestalde, hezkuntza arloari orokorrean dagokionean, ikasleek lan kolaboratiboa burutu behar dute baita autonomoa ere. Hau da, ikasketa esanguratsu eta aktiboaren testuinguruan, ikasleek jakin behar dute haiek haien kabuz lan egiten bai eta taldeka lan egiten, elkar jarduten

LANAREN ESTRUKTURA ETA SEKUENTZIAZIOA

Lehenik eta behin, proposamen didaktiko hau gutxi gora behera hilabete bateko epean burutzeko dago diseinaturik. Nafarroako geografia eta historia irakasgaiak lau saio ditu astean zehar, proiektu honi klasean hamalau saio eskainiko zaizkiolarik.

Bestetik, lana hirugarren ebaluazioan burutuko da, apirila eta maiatzeko hilabeteen artean, hau da, aste santuko oporren ostean. Modu honetan, jada kurtsoa hasirik legoke eta, beraz, irakasleak klasearen dinamika hobeki ezagutuko du eta ikasleak ere, hala nola, izan ditzaketen zailtasunak. Gainera, hirugarren ebaluazioan planteaturik ikasleak kurtsoaren erritmoan murgildurik egonen dira, lana kurtso hasieran planteatuz gero ez lirakekeelarik hain prest egonen gaitasun aldetik lana ongi burutzeko. Baita, hirugarren ebaluazioan aplikatzea planteatu da aurretik bi ebaluazioetan gainontzeko gaitegia eman ahal izateko. Hau da, lehenengo ebaluazioan pentsatu dut lehenengo bi eduki multzoak jorratzea eta ondotik, historiako lehenengo biekin jarraitzea, hau da, 5. eta 6. multzoak. Ondotik, bigarren ebaluazioan kurrikulumak zehazten duen eduki multzoen segida jarraituko da, Erdi Arotik Nafarroan Gerra Zibila aztertu arte. Orduan, azkenengo ebaluazioa lana aplikatzeari dedikatuko zaio, 3., 4. eta 11. multzoak jorratuz⁴⁶. Hauek lanaren bitartez jorratuko dira klasean. Azkenik, denbora egonez gero, azkenengo eduki multzoa 12.a, egungo Nafarroako egoera politiko, ekonomiko zein soziala aztergai duena landuko da. Printzipioz denboralizazioa egokia da horrela, baina beti arazoak suerta daitezke kurtso akademiko batean zehar eta gaitegia atzeratu daiteke lana pilatuz. Dena dela, nik uste dut denbora aldetik planifikazioa egokia dela, maiatzaren hasiera edo erdialdean amaituko da lana, hortaz, nahiz eta arazoak egon, badago denbora moldatzeko eta azkenengo eduki multzoa ere jorratzeko.

Hortaz, klasean burutuko dute lana ikasleek, modu horretan haien ebaluazio prozesua jarraitu daitekeelarik. Beherago zehaztuko dut zein izanen den lanaren estruktura eta zer planteatuko dudan saio bakoitzean, informazioaren bilketatik hasirik zein ebaluazio saioa aipatuz. Hala ere, AOIk metodologiak lan inportantea eskatzen du, maiz etxean derrigorrean egin beharrekoa, hortaz, ikasleek lana nagusiki klasean burutu arren informazioa bilatu zein beste jarduera batzuk haien kabuz egin beharko dituzte klasetik at. Haien kontuan hartu beharko dute zein den haien lanaren egoera eta jarraipena, haien izan behar dute ardura. Dena dela, saiatuko naiz lanaren gehiengoa klase orduetan ikasleek egin dezaten. Izan ere, irakasgaia hau bigarren batxilergoko kurtsoan eskaintzen da ere, eta kurtso hau selektibitatea edo beste hauta probak egitera zuzendurik dagoenez, lan dezente dute ikasleek egiteke.

Orduan, lanaren banaketa saioetan hurrengoa da:

⁴⁶ Ikusi eranskinetan kurtsoko unitate didaktikoen banaketa

Lehenengo saioan, ikasleei azalduko zaie zein den lanaren funtsa, zergatia. Lana aurkeztuko zaie, hau da, Nafarroako industrializazio prozesua: Iruñeko hazkunde demografikoa eta eraldaketa soziala. Lanaren helburuak, egin beharrekoa, hau da, ebaluatuko dena, beheago azalduko dudana, eta nola izanen diren ebaluatuko azalduko zaie. Beraz, helburuak eta ebaluazioa biltzen dituzten orrialdeak banatuko zaizkie, bai eta errubrikak ere, jakin dezaten hasieratik zer eskatzen zaien eta nola izanen diren ebaluatuko. Lanaren eszenarioa ere banatuko da, hasieratik buruan izan dezaten, baina hurrengo saioan landuko da. Orokorrean azalduko zaie zertan oinarrituko den proiektua, zenbat saiotan burutuko duten eta zer pausu jarraitu beharko dituzte. Pausu horiek AOI metodoarenak izanen dira, egoera aurkeztuko zaie, aurreko ezagutzak jorratuko dituzte, hipotesiak egiten dituzte, informazioa bilatu eta horren harira hipotesiak berregin, birpasatu eta azkenik proiektua aurkeztu. Gainera, zazpigarren saioan burutuko den jarduera berezia egiteko taula bat banatuko zaie.

Baita lehenengo saio honetan esanen zaie taldeka egin behar duten lana dela eta, hala, taldeka banatuko dira. Izan ere, AOI metodologia, esan bezala, lan kolaboratiboan oinarritzen da, lan taldeak osatu behar direlarik. Hau da, metodologia honen gakoetako bat, hezkuntzan bultzatu beharrekoa, lan kolaboratiboa da. Egile askok defendatu izan dute lan kolaboratiboa, Dewey eta Kilpatrikek (2004) "Proiektuen Metodoa" delakoa garatzean defendatzen zutelarik ikasleak talde txikietan banatuz hobeki ikasten zutela. Cousinetek (1967) ere ikasketa aktiboa defendatzen zuen eta bere ustez, taldean aritzean eztabaida sustatzen zenez lan indibiduala baino hobea litzateke.

Lan taldeen antolaketa ez da gauza hutsala, ikasleek elkarreaginduen dute, bakoitzak dituen gaitasunekin bakoitzak haren ekarpena eginez. Orduan, bata bestearengandik ikasiko du, ikuspuntu eta ideia desberdinak azaleratuz. Hala, ideia desberdinen aurkezpenak eta eztabaidak ahalbidetzen dute ikuspuntu gehiago kontuan hartzea, lanaren garapena aberastuz. Ikasleendako motibagarriagoa izan daiteke horrela jardutea, gainera, haien klasekideekin egotean haien maila duten pertsonekin daude, konfidantza gehiago izan dezakete irakaslearekin baino, hurbilagoa izan daitekeelarik eta haien hizkera erabili dezakete. Erosoago sentitu daitezke eta hura dudarik gabe inportantea da lana burutzerakoan.

Batxilergoko klaseetan 30 ikasle inguru egoten dira eta hura kontuan harturik, 4-5 pertsonen osaturiko 6-7 talde txiki osatuko dira. Talde bakoitzean dagoen ikasle kopurua antolatu behar da, taldeak oso handiak izatekotan kooperazioa eta koordinazioa ez dira ongi gauzatuko, nahiz eta ikasle bakoitzak egin beharreko lana gutxiago izan. Halere, modu horretan taldeko parte batek soilik burutuko luke lana. Talde txikietan antolaturik, lan gehiago egin beharko badute ere, hobeki koordinatuko dira eta kontrolatuko dute bakoitzak egiten duen lana, hau da, oreka edo armonia mantentzea errazagoa da.

Talde hauek ahalik eta heterogeneoen izan beharko dira, aipatu bezala, talde lanen helburua ikuspegi desberdinak azaleratzea baita. Zentzu horretan irakasle bezala saiatu behar dugu taldeak orekatuak izaten, mistoak genero aldetik, neska eta mutilek

elkarrekin aritzeko eta lan egiteko eta baita gaitasunei dagokienean ere. Hau da, nota oso onak ateratzen dituztenak eta okerragoak lortzen dituztenak elkartu, laguntzeko. Taldeak heterogeneoak izanik, beraz, ikuspuntu desberdinak azaltzen dira, gaitasun desberdinak, ikasle bat gai konkretu batean oso azkarra izan daiteke edo interes berezia izan dezake eta beste batek beste batean. Halere, aniztasun hori kudeatzen jakin behar da, lan kolaboratiboak askotan huts egiten baitu ikasleek ez dakitelako amankomunean jarduten. Ikasleek beraiek kontrolatu beharko lukete bakoitzak lan egiten duela eta guztiek parte hartzen dutela. Dena den, irakasleak klaseetan kontrolatu beharko du oreka hura mantentzen dela eta, taldeak funtzionatzen ez duela ikustekotan, esku hartuko du.

Bigarren saioan, lanarekin hasiko dira, eszenarioa aurkeztuko zaielarik eta aurreko ezagutzak landuko dituztelarik. Ikasleak taldeka jarriko dira klasean, bakoitza espazio batean, horretarako noski mahaiak eta aulkiak mugitu beharko dituztelarik. Orduan, jada lehenengo saioan banatu zitzaizen eszenarioa aurkeztuko zaie⁴⁷, eta haiek lasai irakurriko dute klasean. Arazoaren aurkezpen honekin hasiko dira, beraz, ikasleak dituzten aurreko ezagutzak lantzen. Horrela, aurretik jorraturiko gai historikoen, nagusiki Gerra Zibila eta Frankismoaren sorrera, errepaso labur bat eman daiteke, ideiak freskatzeko. Ondotik, arazoa aurkezteaz aparte, galdetegi labur bat banatuko da jada taldeka dituzten ideiak azaleratzeko⁴⁸. Taldeka daudelarik haiek haien ekarpenak egin behar dituzte eta galderei erantzunez ideiak adierazi. Modu honen bidez, duten aurreko ezagutza azaleratuz, hobeki burutu ahalko dute ikasketa prozesua. Ikasleek dituzten aurreko ezagutzak adierazi behar ditugu, konprobaturik baitago eduki eta ezagutza berriak bereganatzeko orduan hauekin lotzea egokia dela.

Hirugarren saioan, ikasleek jada aurreko ezagutzak landu dituztelarik, lehenengo ideiak eta hipotesiak eginen dituzte. Taldeka jarriko dira eta haiek lasai lan egiten utziko zaie. Irakaslea ikusle gisa egonen da, duda inportanteak baldin badaude haiek bideratzen saiatuko delarik, baina, bestela ez du parte hartuko. Beraz, ikasleek argi edukirik zer egin behar duten eta zergatik, aurreko ezagutzak landurik egoera bideratzen hasi behar dira. Haiek eztabaidatzen hasi beharko dira eta erabakiak hartzen, informazioa behar duten edo ez, nondik eskuratu dezaketen, etab. Bitartean noski, prozesu guztia idatzi beharko dute eta irakasleak taldeetara hurbilduz konprobatuko du nola garatzen ari den lana.

Ondotik, laugarren saioan, ikasleek jada buruan izanen dute zer egin behar den, nondik hasi daitezkeen eta zer informazioa jaso dezaketen. Hala ere, informazioa eskuratzeko baliabideak aipatuko die irakasleak, ez zaie informazioa emanen edo baliabideak banatuko. Jarraibide gisa esanen zaie soilik internetera jo dezaketela, hau gauza jakina den arren, eta bertan bila dezatela blog, albiste, artikulua eta entziklopedien artean. Ez zaie weborrien izenik edo liburuen izenik emanen, soilik non bilatu dezaketen informazioa, erreferentzia gisa. Askotan, ikasleak internetera jotzen dute, Wikipediara bezalako esteketara zuzenean, eta lan xumea aurkezten dute informazio gutxirekin,

⁴⁷ Ikusi eszenarioa eranskinetan.

⁴⁸ Galdetegia ere eranskinetan jarri dut.

orduan, lortu behar da sakonki bilatzea eta informazio anitza bilatzen saiatzea. Saio honetan ere, eta gainerakoetan haien lana klasean burutu dezaten ordenagailuak erabiliko dituzte. Honela, institutuak duen ordenagailu gela erabiliko da edota talde bakoitzarendako ordenagailu bat egonik hauek klasean erabiliko dituzte ikasleek. Gauzak horrela, haiek erabili beharko dute ordenagailua bai lan prozesua garatzeko, hots, koadernoan erabili beharrean zuzenean ordenagailuan aritzeko bai eta informazioa bilatzeko. Haiek interneten informazioa bilatu beharko dute. Bitartean irakaslea klasetik ibiliko da haien lana ikuskatzen, ez du parte hartuko eta ez die iturririk emanen. Hori bai, ikasleek dudak izatekotan argitzen saiatu behar gara eta haiek artikulua jakin baten erabilera aproposa den galdetzekotan, aholkua eskatzekotan bada laguntzen saiatuko gara, gehiegizko lana den edo artikulua zaila den adieraziz.

Nire helburua da lanaren gehiengoa klasean egitea, hala ere, denbora ez edukitzean edo haiek ongi antolatzen ez badira, lanaren parte bat etxean egin beharko dute. Bosgarren eta seigarren saioetan ordenagailuak erabiltzen jarraituko dute. Beraz, informazioa bilatzen eta biltzen jarraituko dute saio hauetan.

Baliabideen erabilerari dagokionean, argi eta garbi azalduko zaie ikasleei erabiliriko iturri guztiek haien erreferentzia izan beharko dutela, nondik atera dituzten, nork eginak edo argitaratuak diren adierazi beharko dute. Izan ere, maila xume batean ari gara Batxilergoan, ez gara ari unibertsitate mailan edo maila profesional batean, baina autoreen eskubideen ideia azaldu behar diegu. Haien bizitzerako, etorkizunari begira edo unibertsitate mundurako baliagarri suertatuko zaie eta hala ikertzaile profesionalaren xarma hura are gehiago sustatuko genuke.

Gainera, oso argi utzi beharko zaie ikasleei ez dela kopia hutsik onartuko, hitzez hitzeko esaldi edo kopiak ez direla lan orijinala. Azken finean, proposamen honen xede bat da ikasleen lan autonomia bultzatzea, haiek ezagutza prozesu hori garatzea, orduan, haiek ez badute landuriko informazioarekin ondorio eta ideia orijinalik garatzen eta kopia hutsak egiten badituzte lanaren garapena okerra litzateke.

Ondotik, zazpigarren saioan, jarduera berezi bat planteatuko zaie ikasleei, haien guraso edo aitatxi-amatxiei buruzko taula bat osatzea, haien jatorri eta ogibideei buruzkoa⁴⁹. Hau da, saio honetarako ikasleek lehenengo saioan emaniko taula bete beharko dute etxean eta klasera eramanez. Klasean emaitzak bilduko dira eta klasekideen taula orokorra osatuko da, estadistikoki datuak bilduz. Hemendik aterako diren emaitzetatik, ikasleek saio honetan ondorioak aterarazi beharko dituzte. Ondorioak edo informazio baliagarria ateratzen badute, hura haien lanean erabili dezakete edo haien lanean azalduko duten egoera orokorrarekin lotu. Ariketa honen xedea da haien senideen informazioa baliagarria suerta ahal dela antzematea. Ahozko iturrietara hurbilketa xume bat da honakoa. Ahozko testigantzen bilketa planteatu ahal zaie ikasleei, baina, honakoa lan inportantea iruditzen zait, kostoso, eta beraz, modu xume honen bidez hurbilduko dira ikasleak haien senideen bizitzetara. Horrela, ikus dezakete haien senide edo ezagunen bizitzak loturik daudela industrializazioaren prozesu

⁴⁹ Taula eranskinetan dago.

historikoarekin. Ariketaren bidez ikasleek aterako dituzte ondorioak eta agian motibagarriagoa suertatu ahal zaie, haien senideen bitzita hurbilagoa izatean.

Zortzigarren saioan ikasleek jada informazio dezente bildurik izan beharko dute eta aurreko saioan eginiko ariketarekin ideiak argi izan beharko dituzte. Beraz, klase honetan gainontzeko saioetan bezala, taldeka jarriko dira eta hipotesia edo ideia nagusiak jada zehaztu beharko dituzte. Oraindik informazio nahikorik ez edukitezkotan eta hura etxean bilatu ez badute, posible izanen dute bilaketarekin ordenagailuak erabiliz jarraitzea, baina kontuan hartuko da ebaluazioan zein izaten ari den haien lanaren garapena.

Hurrengo saioan, hasi beharko dira beraz, jada lana ongi antolatzen, prestatzen eta idazten. Puntu honetan agian arazoak eta zailtasunak agertuko dira eta ikasleek dudak izan ditzakete. Irakaslea saiaturiko da haiek bideratzen, baina berriz diot, irakasleak ezin du haien lana burutu, hori ez baita xedea, galderen bitartez esanen zaie haien ideiak birpasatzeko, idatzi dutenari beste begirada bat botatzeko, agian informazio gehiago bilatzeko... Orduan, dudak azaltzearekin batera, ikasleek garatu dituzten ideiak berrantolatu eta hipotesiak birpasatuko dituzte.

Hurrengo bi saioetan ere, jarraituko dute lana burutzen. Eskuz egin dezakete koadernoan eta gero garbira pasa ordenagailura edo klasean bertan, ordenagailuak erabiltzeko parada baldin badago bertan prestatu dezakete. 12. saioan jada ikasleek lana amaitu beharko dute, bestela etxean bukatu beharko dute, hurrengo saiorako idatzizko lana entregatu behar dute eta. Gainera, saio horretan bertan, aurkezpena prestatu beharko dute. Horrela, ikasleek erabaki beharko dute zer den haien klasekideei helarazi nahi dieten mezua, zeri emanen dioten garrantzi gehiago, irudiak erabiliko dituzten edo ez, edo nola banatuko duten lana aurkezterako orduan.

Azkenik, azkenengo saioak 13. eta 14. saioak izanen dira, hauetan ikasleek burutu duten lana aurkeztu beharko dute haien klasekideen aitzinean. Aurkezpenek hamar-hamabost minutu iraunen dute. Aurkezpen hauetan ikasleek gaia aurkeztu beharko dute, hots, industrializazio prozesuaren bilakaera, sorrera, prozesuaren kausak eta haren ondorioak, demografia aldaketei, migrazio mugimenduei eta ondorio sozialei erreparatuz. Baita, bilaturiko informazioari buruz hitz egin dezakete eta izan dituzten zailtasunen inguruan. Taldeko partaide guztiek parte hartu beharko dute. Beherago, ebaluazioan zehaztuko dut nola ebaluatuak izanen diren eta zergatik. Baliteke denbora aldetik justu samar ibiltzea, baina, 6-7 talde izanik, hiru edo lau taldek klase batean aurkeztu dezakete eta gainontzekoak azkenengo saioan. Ebaluazioan azalduko dudak bezala, aurkezpenean ere kontuan hartuko da irudien edo bideoen erabilera.

EBALUAZIOA

Planteaturiko AOI honetan idatzizko lan bat eta ahozko aurkezpen bat eskatuko zaie ikasleei. Bi ariketa horiek izanen dira irakasleak zuzenduko dituenak eta, beraz, ebaluatu. Modu horren bidez, izanen dira ebaluatuak ikasleak. Esan bezala, proiektu hau kurtsoko hirugarren ebaluazioan burutzeko prestaturik dago, eta lanak bere osotasunean, ebaluazio horren %70 a balioko du. Honen barnean, idatzizko lanak %65 balioko du eta ahozko aurkezpenak %35 hurrenez hurren.

Beraz, bi jarduera horiek ebaluatuko dira, errubrikaren ebaluatze sistemaren bidez. Izan ere, sistema horrek ahalbidetzen du hainbat alor kontuan hartzea, eta talde lana bere osotasunean ebaluatzea. Horrela, bi errubrika prestatu dira. Bata, idatzizko lana ebaluatzeko eta bestea, ahozko aurkezpena ebaluatzeko. Errubrikak prestaturik, gorago esan bezala, hauek proiektuaren lehenengo saioan banatuko zaizkie ikasleei, haiek jakin dezaten nola ebaluatuak izanen diren, zer aspektu hartuko diren kontuan, etab. Azken finean, ebaluatzeko modu hau bat etortzen da AOIren eta konstruktibismoaren filosofia berarekin, ikasleak autonomoak dira eta haien ikaskuntza prozesuaz arduratzen dira, haien lana nola ebaluatua izanen den dakitelarik. Nik uste inportantea dela haiek ongi jakitea zer eskatzen zaien eta nola zuzenduko den haien lana.

Errubrika hauek kontuan hartu behar dituzte ikasleek erdietsi beharreko helburuak, gorago aipatu ditudanak, bai proposamenaren xedeak bai eta LOMCEk zehazten dituenak ere. Errubrikak irakasleak beteko ditu, idatzizko lana ikasleek entregatu ostean, eta ahozko aurkezpena momentuan beteko da, ikasleek jarduten duten bitartean oharrak hartuz.

Hau izanen da idatzizko lanaren errubrika, idatzizko lana ebaluatzeko erabiliko dena:

IDATZIZKO LANAREN ERRUBRIKA				
	4-BIKAIN	3-ONGI	2-NAHIKO	1-GUTXI
Lan kolaboratiboa	Taldekide guztiak amankomunean jardun dute.	Taldekide guztiak jardun dute, baina lan banaketa hobea izan zitekeen.	Taldekideen artean batzuek lan gehiena egin dute.	Taldeko lana eskasa, ez da koordinaziorik egon, bakar batek lan egin du.
Baliabideen erabilera	Iturri idatzi dezente erabiltzen dira era egokian.	Idatzizko iturri egokiak erabiltzen dira.	Iturri oso gutxi erabiltzen dira.	Erreferentziarik gabeko iturri bakarra erabiltzen da.
Lanaren antolaketa	Informazioaren antolaketa oso ongi eginga dago.	Informazioa paragrafoetan modu egokiz antolaturik dago.	Informazio eta ideien antolaketan akatsak daude.	Informazioa desantolaturik, paragrafoen arteko lotura kaskarra. Kohesiorik ez.
Konklusioa	Gaiarekin loturiko ondorio egokiak aurkezten dira.	Ondorioek lotura erlatiboa dute aurkezturiko gaiarekin.	Aurkezturiko gaiarekin lotura eskasa dute ondorioek.	Ez dira gaiarekin loturiko ondoriorik aurkeztu.

Errubrika taula honen bidez, beraz, ikasleek taldeka nola jardun duten ebaluatuko da, hura baita proposamen honen gakoetako bat, eta bestetik idatzizko lana ebaluatuko da. Horrela, iturrien erabilera kontuan hartuko da, aproposak erabili dituzten, haien kopurua eta erreferentziak paratu dituzten; lanaren antolaketa, hots, ideien eta informazioaren ordena eta sekuentziazioa; eta azkenik lanaren konklusioa, haien ondorioa bat datorren gainontzeko informazioarekin eta haiek paraturiko argumentu eta ideiekin. Orduan, errubrika honen bidez, ikasleek lortu beharreko hurrengo helburuak ebaluatuko dira.

Hasteko, lan kolaboratiboa ebaluatuko da, hurrengo bi helburuak erdietsi dituzten ebaluatuz:

- Lan kolaboratiboa burutzea.
- Lan autonomoa burutzea.

Ikasleek taldeka, amankomunean, bakoitzak haren ekarpena eginez eta kolaborazioan jardun duten ebaluatuko da, beraz. Honakoa, idatzizko lanaren bidez, islatu daiteke, baina batez ere, irakasleak eguneroko klaseko jarduna kontrolatzean ebaluatuko du. Klaseetan ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikusle moduan ebaluatuko du.

Ondotik, errubrikak zehazten duen bezala, baliabideen erabilera ebaluatuko da, hurrengo helburuak lortu diren konprobatuz:

- Ikerketa historikoa burutzea, metodo historikoa ezagutzea.
- Iturri historikoak ezagutzea.
- Informazioa interpretatu eta ebaluatu, gertaera eta iritziak bereiziz, testigantzen gabeziak ikusiz, aurreiritziak eta partzialitateak antzemanaz.

Ikasleek zer iturri mota erabiltzen dituzten, zenbat eta nondik eskuratzen dituzten kontuan hartuko da. Honakoa, idatzizko lanean islatuko da.

Azkenik, idatzizko lanaren antolaketa eta konklusioa ebaluatuko dira, hurrengo helburuak erdietsi diren konprobatuz:

- Nafarroako industrializazio prozesuaren sorrera eta garapenaren zergatiak eta kausak ulertu eta ezagutu.
- Industrializazio prozesuaren ondorio ekonomiko, politiko eta sozialak ulertu, Nafarroako gizartean eta errealitatean izan zuen inpaktua aztertuz.
- Ezagutza historikoaren ondorioak aurkeztea.
- Iraganeko gertakariak azaltzeko enpatia erabiltzea.

Beraz, idatzizko lanean ideiak ongi antolatu dituzten ebaluatuko da, kausa-ondorioei erreparatuz. Konklusioan ideiak hipotesiarekin lotura duten kontuan hartuko da. Enpatiaren erabilera idatzizko lanean zehar eta ideien konklusioan antzeman beharko da ere.

Beste hau ahozko aurkezpena ebaluatzeko erabiliko da:

AHOZKO AURKEZPENERAKO ERRUBRIKA				
	4-BIKAIN	3-ONGI	2-NAHIKO	1-GUTXI
Ahotsa, jarrera, begirada	Ongi ulertu zaie, modu egokian azaldu dute. Dinamikoa izanda. Ongi prestatuak.	Ulerkorra izanda, koordinatu dira, baina monotonoa izanda.	Ulerkorra izanda, baina seriotasun handirik ez dute adierazi, ez diete haien klasekideei zuzenean begiratu.	Ez dira koordinatu, guztiek ez dute bezain adina hitz egin eta ez dutela prestatu adierazi dute.
Mezua	Era egokian aurkeztu dute lan osoa.	Lana modu egokian aurkeztu dute baina detaileak ahaztuz.	Ez dute gai osoa jorratu, ondorioak	Gaia gaineratik aurkeztu dute, eduki inportanteenak baztertuz.
Sekuentziazioa	Aurkezpenaren antolaketa eta sekuentziazio egokia.	Ongi antolaturiko aurkezpena.	Ideien antolaketa eta ordenean akatsak egiten dira.	Aurkezpenak ez du orden ez antolaketarik, errepikapenak egiten dira.
Baliabide digital edo irudien erabilera	Gaiarekin bat zetorren irudi eta bideoak aurkeztu dira.	Bi edo hiru irudi aurkeztu dira gaiarekin lotuak.	Baliabide grafiko eskasak eta lotura gutxikoak gaiarekin aurkeztu dira.	Ez da irudirik ez beste baliabiderik aurkeztu.

Lanaren aurkezpena ere ebaluatuko da beste taula honen bidez. Alde batetik aurkezpena bera ebaluatuko da, hau da, nola egin duten, ongi ulertu zaien, guztiek hitz egin duten eta jarrera egokiarekin; eta bestetik lanaren funtsa ongi azaldu duten edo ez, gaia bere osotasunean eta orden batekin azaldu duten. Azkenik ere baliabide bisualen erabilera kontuan hartuko da.

Ahozko aurkezpenaren errubrikaren bidez ere gorago aipaturiko helburuak lortu diren konprobatu daiteke, lan kolaboratiboa eta lan autonomoa bereganatu duten ikusi daiteke ikasleek egiten duten aurkezpenarekin. Baita, aurkezpenean ideien antolaketa eta mezua, gaia, nola azaldu duten ebaluatzean baliabideen erabilera, kausalitatea zein ondorioak atera dituzten konproba daiteke.

Errubrikak ere helburu orokorrekin bat datoz. Ikasleak hurrengo helburuak lortu dituzten konprobatuko da ebaluazioaren bidez.

- Irakurketa, ikasketa eta diziplina azturak sendotzea, ikaskuntza behar bezala aprobetxatzeko beharrezkoak diren baldintza modura eta pertsona bezala garatzeko baliabide modura.
- Gaztelania eta, kasua bada, euskara menderatzea, ahoz nola idatziz.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eraginkortasunez eta arduraz erabiltzea.
- Mundu garaikidearen errealitateak, haien aurrekari historikoak eta haien bilakaeraren faktore nagusiak ezagutu eta kritikoki balioestea. Bere inguru sozialaren garapen eta hobekuntzan elkartasunez parte hartzea.
- Nafarroako ondare natural, historiko, artistiko eta kulturala eta berezia egiten duten hizkuntzen, kulturen eta ohituren aniztasuna ezagutu, balioetsi eta errespetatzea.

Honela, hemen azaltzen diren helburuak ikasleek erdietsi dituztela konproba daiteke lanaren antolaketan, konklusioa aztertzean eta baliabideen erabileran. Dударik gabe, lanak egiteak berak ahalbidetuko du ikasleek diziplina eta ikasketa garatzea. Euskararen ahozko zein idatzizko erabilera bi errubrikek ebaluatuko dute, lan prozesu osoan zehar ebaluatuko delarik hizkuntzaren erabilera. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera baliabideen erabilera ebaluatzerakoan konprobatuko da. Eta azkenik, lanaren antolaketaren, ideien antolaketaren eta konklusioaren ebaluazioak adieraziko du ikasleek azkenengo bi helburuak lortzen dituzten.

Azkenik, ebaluazioak adieraziko du ikasleek kurrikulumak zehazten dituen gaitasunak garatu dituzten edo ez. Beraz, errubriken bidezko ebaluazio modu honen bidez, kurrikulumak zehazten dituen helburuak eta gaitasunak ebaluatuko izanen dira. Eta, azken finean, ikasleek irakasgaiaren xedeak eta proposamenaren xedeak erdietsi dituztela konprobatuko da, hots, ikasketa esanguratsuaren bidez, Nafarroako industrializazio prozesua eta haren ondorio demografiko, ekonomiko eta sozialak ezagutu dituztela.

KONKLUSIOA

Hemen aurkeztu dudan proposamen didaktikoa ez dut ikasgela baten aitzina eraman, ez dut aplikatu. Horrela bada, ezin dut proposamen honen baliagarritasuna klase batean bilduriko emaitzetan funtsatu.

Nire proposamena hipotetikoa da, aplikatzeke dago. Hala eta guztiz ere, nik uste erabilgarria izan daitekeela. Nire iritziz, planteamendu hau burutuz gero, aipaturiko helburuak erdietsiko lituzkete ikasleek. Izan ere, eta horretan dudarik ez dago, Arazoetan Oinarrituriko Ikaskuntza metodologia egokia da, hala adierazten baitute geroz eta ikastetxe gehiagotan burutzen diren antzeko proiektuek.

Lan honekin kurrikulumak zehazten dituen gaitasunak eta helburuak landuko lituzkete ikasleek. Lan indibidual, aktiboa eta esanguratsua garatzeaz aparte eta aipaturiko iturrien erabileraz aparte, ikasleak talde lanean arituko lirarteke. Lan kolaboratiboa, beraz, garatuko genuke planteamendu honekin. Dudarik gabe, lan kolaboratiboa eskolen erronketako bat bada, biharko egunean mundu profesionalean zein eguneroko bizitzan elkarrekin jardutea inportantea baita. Hala, lan hau horretan oinarritzen da, ikasleek bata bestearengandik ikasi behar dutelarik eta elkar lagundu bakoitzak haren ekarpena eginez. Arazoak egon daitezke noski, eta lan honen abantaila izan daitekeena desabantaila bihurtu daiteke. Izan ere, lan kolaboratiboa garatzea beti zaila suertatzen da, beti arazoak egoten dira, baina irakaslearen laguntzarekin armonia mantendu daiteke, eta gainera, arazoak egonik ere ikasleak dauden adinetan kontuan harturik haietaz ere ikasi dezakete, lana burutzerako orduan haiek gailentzen ikasiko luketelarik.

Baina funtsean, proposamen honekin azaldu nahi da ikasleek garatuko dutela haien ikasketa prozesua, historialariaren metodoaz jabetuz hurbilekoa den gai historikoa landuz. Lan honen bidez, ikasleek haien eguneroko errealitatearen parte den historia aztertuko dute. Haien guraso edo aitaxi-amatxi bezalako pertsonen bizimodueta murgildu daitezke. Haien hiri, herri eta auzoetako historiara jo dezakete. Hemengo geografia eta historia jorratzean hortaz, ikasleendako erakargarriagoa izan daiteke. Eta motibagarria eta interesgarri suertatzen dena hobeki barneratzen dute ikasleek. Gainera, ikasleendako interesgarria izan daiteke haiek izanen baitira iturrietara joko dutenak, historialariaren papera jokatzuz, eta beraz, haiek ideiak garatuz eta historia aztertuz. Proposamenaren gakoa, beraz, gai hurbila izatea da, honek ahalbidetuko duelarik historiaren hainbat alor lantzea, hala nola, aldaketak eta jarraipenak aztertzea, iragana eta orainaren arteko lotura edo kausalitateak eta ondorioak. Dudarik gabe, aspektu hauek eguneroko bizitzan azaltzen dira, eta ezagutza garatze aldera funtsezkoak dira.

Laburbilduz, lan honek alor anitz lantzeko parada eskaintzen du, ikasleen lan autonomoa zein lan kolaboratiboa garatzeko balio dezake eta ikasleendako motibagarria eta interesgarria suerta daiteke gertuko gaia jorra dezaketelako. Gainera, historia

diziplinaren hainbat aspektu landuko lituzkete, iragana-oraina eta denbora historikoak jorratuz, historialariaren metodoaz jabetuz, iturrietara joz eta, haiek haien kabuz ezagutza bereganatuz. Azken finean, egungo Nafarroako gizartea eta errealitate politiko, sozial zein ekonomikoa ulertuko lukete ikasleek modu esanguratsu eta aktibo baten bidez.

ERANSKINAK

1- IRAKASGAIAREN ANTOLAKETA

Nafarroako geografia eta historia irakasgaiko programazioa	
1. Ebaluazioa	1. Nafarroaren nortasunaren ezaugarriak 2. Natur ingurunea 5. Historiaurretik musulmanen nagusitasunera bitarte 6. Iruñeko Erresuma
2. Ebaluazioa	7. Nafarroako Erresuma 1512ra arte 8. Nafarroa Monarkia Hispanikoan sartua (XVI-XVIII. mendeak) 9. XIX. mendea 10. XX. mendea, Gerra Zibilera arte
3. Ebaluazioa	3. Populazioa eta hiri sistemak 4. Produkzio sektoreak 11. Gerraondotik Trantsizio demokratikora 12. Gobernu demokratikoak gaur egundaino

2- DENBORALIZAZIOA ETA SAIOEN ANTOLAKETA

SAIOEN ANTOLAKETA	
1. saioa	- Irakasleak lana aurkeztu
2. saioa	- Eszenarioa aurkeztu - Aurreko ezagutzak landu
3. saioa	- Lehenengo hipotesi eta ideiak azaleratu
4. saioa	- Informazioa bildu
5. saioa	- Informazioa bildu
6. saioa	- Informazioa bildu
7. saioa	- Senideen inguruko taula klasean aurkeztu
8. saioa	- Hipotesiak eta ideiak egin
9. saioa	- Idatzizko lana prestatu - Hipotesiak berregin
10. saioa	- Idatzizko lana prestatu
11. saioa	- Idatzizko lana prestatu
12. saioa	- Idatzizko lana amaitu - Ahozko aurkezpena prestatu
13. saioa	- Idatzizko lana entregatu - Ahozko aurkezpenak
14. saioa	- Ahozko aurkezpenak amaitu

3- ESZENARIOA

XX. mende hasieran, Gerra Zibilaren ostean (1936-1939), Nafarroa nekazaritzara dedikatzen zen eskualdea zen nagusiki, haren ekonomiaren oinarria nekazaritza zen, industriarik, hots, fabrika edo lantegi gutxi zegoelarik eta biztanleriaren gehiengoa nekazaria zelarik. Hala, biztanleriaren gehiengoa landa eremuetan bizi zen. Politikari dagokionean, errepresio frankistak langile mugimenduaren desagerpen edo likidazioa ekarri zuen, eskualdea oso kontserbadorea eta katolikoa izanik.

1960ko hamarkadatik aitzina, ordea, egoera irauli zen. Iruñeak biztanleria hazkunde bizia izan zuen, immigrazio handia bizi izan zuen. Gainera, 70.eko hamarkadan Iruñea frankismoaren aurkako gune inportanteenetariko bat izatera pasa izan zen. Zergatik ote? Zer prozesu gertatu zen Nafarroako gizartea eta demografia errotik eraldatu zituena?

4- IKASLEEK DITUZTEN AURREKO EZAGUTZAK AZALERATZEKO GALDETEGIA

- Zer dakizu Nafarroako azken 50 urteetako historiaz?
- Zein izan da populazioaren bilakaera?
- Zer dakizu Nafarroak bizi izan dituen migrazio mugimenduez? Migrazioa egon ahal zen? Zergatik ote?
- Zer dakizu industrializazio prozesuaz? Aipatuko zenuke iraganean inportantea izan den fabrikaren bat?
- Zer lotura dago industrializazioaren eta demografiak bizi izan zituen aldaketen artean?
- Noiz eraiki dira auzo gehien Iruñean? Zer hamarkadetan? Zer lotura izan dezake horrek industriaren garapenarekin?

5- 7. SAIORAKO IKASLEEK BETE BEHARREKO TAULA

FAMILIAREN TESTIGANTZAK				
Senideak	Jaiotze data	Jatorria	Bizilekua	Lanpostua
Ama				
Aita				
Amaren ama				
Amaren aita				
Aitaren ama				
Aitaren aita				

BIBLIOGRAFIA

ARIZKUN CELA, A. (1992): "La industria en Navarra: una panorámica de tres siglos", *Príncipe de Viana*. Anejo, 16, 393-406.

ARIZKUN CELA, A. (2001): "Navarra, de la especialización agraria a la industrialización" in LLOPIS AGELÁN, E.; MALUQUER DE MOTES I BERNET, J; ZAPATA BLANCO, S. (arg.), *Historia económica regional de España. Siglos XIX y XX*, Crítica, 125-152. orr.

COUSINET, R. (1967): *La escuela nueva*, L. Miracle, Bartzelona.

DE LA TORRE CAMPO, J. (2005): "Instituciones, empresarios y mercado: la industrialización de Navarra bajo el franquismo", *Revista de historia industrial*, 27, 121-161. orr.

DE LA TORRE CAMPO, J. (2006): "Trabajadores, empresarios y tecnócratas en el desarrollo industrial de Navarra (c. 1950-1980)", *Gerónimo de Uztariz*, 22, 75-103. orr.

DEL VALLE, A.; VILLA FERNÁNDEZ, N. (2008): "Aprendizaje Basado en Problemas: una propuesta metodológica con futuro" in ESCRIBANO GONZÁLEZ, A.; DEL VALLE LÓPEZ, A. (koord.), *El Aprendizaje Basado en Problemas (ABP). Una propuesta metodológica en Educación Superior*, Narcea, Madrid.

DEWEY, J. (2004): *Democracia y educación: una introducción a la filosofía de la educación*, Morata, Madril.

DES MARCHAIS, J. E. (1999): "A delphi technique to identify and evaluate criteria for construction of PBL problems", *Medical Education*, 504-508. orr.

DÍEZ MONREAL, J. L. (2012): *Las huelgas de Potasas*, Algorta: Ahaztuak 1936-1977, Iruñea.

GARCÍA RUIZ, A. L.; JIMÉNEZ LÓPEZ, J. A. (2014): "Los principios de cambio-continuidad: base para la comprensión de los hechos históricos y sociales. Su aplicación en el aula", *Educación y Futuro Digital*, 8, 16-29. orr.

GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, A.; MIKELARENA PEÑA, F. (2000): "Evolución de la población y cambios demográficos en Navarra durante el siglo XX", *Gerónimo de Uztariz*, 16, 125-138. orr.

GARRUÉS IRURZUN, J. (2006): "Electricidad e industria en la España rural: el Irati, 1904-1961", *Revista de Historia Económica-Journal of Iberian and Latin American Economic History*, 24, 97-138. orr.

GARRUÉS IRURZUN, J. (1992): "Evolución de la industria hidroeléctrica en Navarra (1905-1945): una aproximación", *Príncipe de Viana*. Anejo, 16, 475-495. orr.

GRACIA GUILLÉN, J. A. (2001): *La industria azucarera y el sector remolachero en Navarra: un siglo de historia*, Gobierno de Navarra, Iruñea.

FERRER REGALES, M. (1986): "Las transformaciones de la sociedad navarra: urbanización y agrurbanización" in FLORISTÁN SAMANES, A (koord.), *Lecciones de geografía de Navarra*, Ediciones Universidad de Navarra, Iruñea, 109-129. orr.

FERRER REGALES, M. (1986): "La población" in FLORISTÁN SAMANES, A (koord.), *Lecciones de geografía de Navarra*, Ediciones Universidad de Navarra, Iruñea, 129-147. orr.

FERRER REGALES, M. (1986): "El área metropolitana de Pamplona" in FLORISTÁN SAMANES, A (koord.), *Lecciones de geografía de Navarra*, Ediciones Universidad de Navarra, Iruñea, 207-219.orr.

FUENTE LANGAS, J. M. (2014): "Los orígenes de la industria conservera en Navarra. El obrador de Máximo Muerza (1880-1913)", *Príncipe de Viana*, 259, 293-302. orr.

IRIARTE ARESO, J.V. (1995): *Movimiento obrero en Navarra (1967-1977). Organización y conflictividad*, Gobierno de Navarra, Departamento de Educación, Cultura, Deporte y Juventud, Pamplona.

LARRION, P. (1995): "Nafarroaren industrializazioa" in ZALDUA, I; ZURBANO, M (arg.), *Industrializaziotik desindustrializaziora? Euskal Herria kapitalismoaren garapenaren testuinguruan*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo.

LOS HUERTOS CENTENARIO, C. (1992): "La localización del sector industrial en Navarra (1888-1927) factores y condicionamientos", *Príncipe de Viana*. Anejo, 16, 407-432. orr.

MACÍAS MUÑOZ, M. O. (1992): "Aproximación a la política ferroviaria de Navarra: los enlaces ferroviarios con el área cantábrica", *Príncipe de Viana*. Anejo, 16, 497-517 orr.

MANZANARES MOYA, A. (2008): "Sobre el Aprendizaje Basado en Problemas" in ESCRIBANO GONZÁLEZ, A.; DEL VALLE LÓPEZ, A. (koord.), *El Aprendizaje Basado en Problemas (ABP). Una propuesta metodológica en Educación Superior*, Narcea, Madrid.

MANZANARES MOYA, A.; PALOMARES AGUIRRE, M.C. (2008): "Tutoría y mediación en el Aprendizaje Basado en Problemas" in ESCRIBANO GONZÁLEZ, A.; DEL VALLE LÓPEZ, A. (koord.), *El Aprendizaje Basado en Problemas (ABP). Una propuesta metodológica en Educación Superior*, Narcea, Madrid.

MENDAÑA CLEMENTE, D. (1994): "Cambio en la estructura de clases y procesos históricos en Navarra y Zaragoza (1960-1980)", *Gerónimo de Uztariz*, 9-10, 55-74. orr.

MENDIOLA GONZALO, F. (2002): *Inmigración, Familia y Empleo: estrategias familiares en los inicios de la industrialización, Pamplona (1840-1930)*, UPV-EHU, Bilbao.

PAREDES ALONSO, F. J. (1997): *Félix Huarte, 1896-1971: un luchador enamorado de Navarra*, Ariel, Barcelona.

PIAGET, J. (1987): *Psicología y pedagogía*, Ariel, Barcelona.

PRECEDO LEDO, A. (1986): "El proceso de industrialización en Navarra y su localización geográfica" in FLORISTÁN SAMANES, A (koord.), *Lecciones de geografía de Navarra*, Ediciones Universidad de Navarra, Iruñea, 147-161. orr.

SANZ-MAGALLÓN REZUSTA, G. (1998): "El proceso de industrialización en Navarra previo a la integración en la CEE: el Programa de Promoción Industrial y los polos de desarrollo" in "Crecimiento económico, industrialización e integración en la Unión Europea: el caso de Navarra", Universidad San Pablo-CEU, Madrid, 220-286. orr.

SOLA AYAPE, C. (2005): "Fundamentos de la técnica didáctica ABP" in SOLA AYAPE, C. (koord.), *Aprendizaje Basado en Problemas: de la teoría a la práctica*, Trillas: ITESM, México.

SOLAZ-PORTOLÉS, J. J.; SAN JOSÉ LÓPEZ, V.; GÓMEZ LÓPEZ, A. (2011): "Aprendizaje basado en problemas en la Educación Superior: una metodología necesaria en la formación del profesorado", *Didáctica de las ciencias experimentales y sociales*, 25, 177-186. orr.

TORP, L.; SAGE, S. (1999): *El Aprendizaje Basado en Problemas: desde el jardín de infantes hasta el final de la escuela secundaria*, Amorrortu editores, Buenos Aires-Madrid.

TREPAT, C-A. (1995): *Procedimientos en Historia: un punto de vista didáctico*, Editorial GRAÓ, Barcelona.

WOODS, D. R. (1994): *Problem-based Learning: How to Gain the Most from PBL*, W. L. Griffin Printing Limited, Hamilton.

Nafarroako Foru Komunitateko Batxilergoko Curriculuma (LOMCE): 25/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa. 2015eko 127. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 2koa.

Nafarroako Foru Komunitatean batxilergoko ikasketen egitura eta curriculuma ezartzen dituen, 49/2008 Foru Dekretua (LOE), maiatzaren 12koa.